

Ana Toledo euskaltzaina

Barikuan hartu zuen kargua Antzuolan

KULTURA, 22-23



Santi Artetxe nagusitu zen Aramaioko rallyan

Errasti eta Oion aramaiorak lehenengo klaseko onenak izan ziren

KIROLAK, 14-15

Four Friends

Bergaran izan ziren egubakoitzean

KULTURA, 24



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko uztailaren 24a • 3. urtea • 111. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

BEROARI AURRE EGINEZ, FUTBOL TALDEAK LANEAN HASI DIRA

Ibarreko futbol taldeak aurre-denboraldia prestatzen hasi dira. Preferenteko taldeetan ez da aldaketa handirik egon. Aloñak iaz izan zuen talde bera aurkeztu

du. UDA eta Mondrak, aldiz, aldaketa txiki batzuk izan dituzte. Bigarren erregionalean, debagoieneko bi talde berri izango ditugu: Mondra eta Elgeta. **18-19**

Hiriburu izaera bateratua izango du Debagoienak

Behin betiko onarpena jaso du eta udal gehienetan dago Debagoieneko eskualde-egiturako zatiko plana

PLANGINTZEN ARDATZ

Udalek datozen urteetan egingo dituzten lan eta plangintzak Jaurlearitzak ezarritako irizpideetara moldatu beharko dituzte

GARRAIOBIDEA

Tranbia eta autopista izango dira gakoak eta Elorregin Debagoieneko geltoki intermodala egongo da, garraio bideen lotunea

Debagoiena Autonomia Erkidegoko laugarren hiri izateko plangintza onartu eta Udalei helarazi die Jaurlearitzak. Garraio bideen hobekuntzarekin eta zerbitzu

ZERBITZUAK INDARTU

Jaurlearitzak idatzitako txostenean Arrasaten merkataritza eta aisialdirako gunea eta Oñatin golf zelaia daude

URKULUKO 'EKOHIRIA'

Behin betiko planean bertan behera geratu da Urkulun *ekohiri* bat eraikitzekeo egitasmoa. Gune babestua izango da urtegia

eskaintza on baten sakonduta, etorkizunean euskal hiri sistema delakoan sartuko da Debagoiena, 110.000 biztanleren beharrei erantzunez. **2-3**

AHTren kontrako ibilaldia eta bilkura, martitzenean

Zarimutz-Mazmela-Aramaio-Garaia-Arrasate ibilbidea egingo dute. Gero, 18:30ean, bilkura garaian eta 19:00etan kalejira Arbolapentan. **5**

Oporretan irailera arte

Kaixo, irakurle. Udako oporraldia dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ere etenaldia egingo du irailera bitartean. Hurrengo zenbakia irailaren 4an kaleratu dugu. Beraz, ordura arte, ondo ibili oporretan.

GEUREAN

- Udako egun beroetarako hamaika igerileku ditugu gurean: sei irekiak eta bost estaliak | 4-5
- Magdalena ermita berria inauguratu zuten zapatuan Elgetan | 7

Duela 30 urteko alkateen mugimendua gogoratu zuten Bergaran | 10

DEBAGOIENENKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

AZPIEGITURAK | ESKUALDE-EGITURAKO LURRALDEAREN ZATIKO BEHIN BETIKO PLANA IRITSI DA UDAL GEHIENETARA

Erkidegoko laugarren hiria izateko irizpideak ezarriak ditu Jaurlaritzak

Ibarra industria eta komunikazio ardatz izatea gura du Jaurlaritzak, EAE-ko "laugarren hiriburu" bihurtzeko

Jon Berezibar

Dagoeneko artxiboan ez badaukate, jasotzeaz daude ibarreko Udalak etorkizuneko Debagoiena izango denaren ildo nagusiak ezartzen dituen dokumentua: eskualde-egiturako lurraldearen zatiko plana. Behin betiko onarpena eginda, Udalek datozen urteetan egingo dituzten lan eta plan-gintzak Jaurlaritzak ezarritako irizpide nagusi hauetara moldatu beharko dituzte. Laz eman zituen jakitera Jaurlaritzak Debagoienerako zituen asmoak eta behin alegazio eta iradokizunak jasota, behin betiko plana onartu da. Hala, hasiera baten Urkulun egitekoa zen *eko-hiria* ren egitasmoa bertan behera geratu da, aldaketa nabarmen moduan.

Arrasate, Bergara eta Oñati ardatz hartuta, Debagoiena "Autonomia Erkidegoko laugarren hiri moduan egituratzea" aurreikusten da Jaurlaritzaren agirian, "modu deszentralizatuan eta solidarioan". Garapen horretarako ezinbestekotzat jotzen da hainbat puntutan lanak eta hobekuntzak egitea, garraio bideetan eta zerbitzuetan batez ere. Gai nontzeko herriak, Aramaio barne, bizitegi-eremu moduan ikusten dira, oro har. Etorkizunetarako 110.000 biztanleren beharrei erantzuteko moduko hiria proposatzen da txostenean.

AZPIEGITURATAN ETA ZERBITZUETAN SAKONDU

Jaurlaritzak egindako txostenean garapenerako ezinbestekotzat jotzen dira Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango errepidea, ibarrera kanpotiko irisgarritasuna bermatzeko. Tranbia ere komunikazio urrats garrantzitsu moduan ikusten da.



IBARREKO GELTOKI NAGUSIA. Garraioen arteko komunikazio-lotunea egongo da Elorregi auzoan. Autopistaren irteerak, ibar osoko autobus geltoki nagusiak, tranbiak eta aparkalekuak bat egingo dute Elorregin, geltoki intermodal bat osatuz. Duen kokapenarengatik Erki-

2010erako espero da Bergara eta Aretxabaleta lotzen dituen zatia martxan izatea. Horren harira, zatiko planak gomendatzen du RENFE trenarekin lotzeko Legazpiko Telleriaraino luzatzea tranbia, Irun-Brinkola linearekin lotura egin eta batez ere Unibertsitateko ikasleei ibarrera iristeko erraztasunak emate aldera. Garraioei dagokienez, puntu garrantzitsuenetako bat Elorregin egin gura den geltoki intermodala da. Han autopistarako aparkalekuak, tranbiaren geltoki bat eta Debagoieneko autobus eta garraio geltoki nagusiak bat egingo dute.

Komunikazioan eta zerbitzuetako hutsuneak betetzea lehentasunezkoa izango da

Arrasate, Bergara eta Oñati izango dira hiriaren hiru gunen nagusiak, ordena horretan

degoko komunikazioen nukleoetako bat izango da Debagoiena eta ezauzgarri horren bueltan egin beharko da lan datozen urteetan. Helburua "laugarren hiriburuari" dagozkion komunikabide eta garraioekin hornitzea izango da. Hau da lurraldearen zatiko planaren ardatz bat.

Aisialdirako zerbitzuen kasuan, Arrasateko Musakola auzoko kiroldegia –gaur egun egokitzaren ari dira– emango dizkio ibar osoari zerbitzuak, zelaiekin, estadioarekin, mini-belodromo batekin, frontoi eta igerilekuarekin. Haren osagarri izango dira Bergarako pilotalekua eta Elgetakoa (zaletu mailarako). Garagaltza-Berezo (Oñati) gunean ere begi onez ikusten dira golf instalazioak. Aisialdi, turismo eta merkataritza arloan hutsune handiak ikusten ditu txostenak eta beharrezkoa litzateke Arrasaten merkataritzazentro bat egitea eta hotel zerbitzua indartzea, besteak beste.

ETXEBIZITZA

Biztanleriaren garapena ikusita eta arlo ekonomikoaren bultzada kontutan hartuta, 9.576 etxebizitza berrien eraikuntza beharrezkoa izango dela esaten da, horietatik 2.510 babestuak. Bergaran Algodonerako gunea ikusten da etxebizitza berriendako leku bakar moduan eta esaten da Antzuolan eta Elgetan egin beharko liratekeela etxe berriak. Arrasaten lehen lantegiak zeuden orubeen aprobetxamendua azpimarratzen da: Gelma edo Zerrajeran egin den moduan. Oñati ikusten da eraikitzeke lur gehien dituen gunen moduan.

LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

• GARRAIOETAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN EGONGO DA GILTZA

BIZTANLERIA 110.000 biztanle izango ditu ibarrak

Gobernua egindako proiektuaren arabera 2.001 urterako 63.259 biztanle izango zituen Debagoienak baina urte hartako erroldak dagoeneko ia 64.000 biztanle eman zituen. Nahiz eta azken hamarkadan biztanleriak behera egin etorkizunean 110.000 biztanleko ibarra ikusten du Jaurlaritzak bere kalkuluetan. Hazkundearen motore industria eta unibertsitatea izango dira. Kontutan hartzekoa da baita ere, gaur egun eskualdeak sortzen dituen lanpostuak eta egoiliar kopurua antzekoa dela, hau da, lan eta bizi gune berean egiten dela.

UDALEN PAPERA Planak ezarritakora moldatu beharko dira


Jaurlaritzak Autonomia Erkidego osaroko diseinatu ditu zatiko planak, lurraldearen etorkizuneko egituraketa finkatzen dutenak. Plan nagusia da eta Udalek etorkizunean egin beharko dituzten lanak irizpide horien arabera izan beharko dira. Hala ere, Udalei galde eginda, Aretxabaletako hirigintza arduradun Jose Mari Segoviak azaltzen du Jaurlaritzak "malgua" izatea espero dutela. Planak ildo nagusiak ezartzen ditu eta Udalek ere euren plangintzak horren arabera egin beharko dituzte.

GARAPENA: GARRAIOETAN Autopista eta tranbia garraio bideen ardatz

N-1 eta A-8 errepideek guztiz baztertuta, Eibar-Gasteiz autobidea eta Beasain-Durango izango dira errepideei dagokien bizkarrezurrak. Bigarren mailako bideetan ere makina bat hobekuntza proposatzen dira. Tranbia izango da ibar bakoitzeko garraio bide nagusia. Maiatzean esleitu zen trazatua baina 2010 urtera arte ez da martxan egongo Bergararik Aretxabaletara doan zatia. Geratzen den ibilbidea rekin geroago hasiko dira. Ibarren garapenerako gako nagusia garraio bideen hobekuntza egongo da.

ZERBITZUEN HOBETZEA Merkatal zentroa eta golf-zelaia aisialdirako

Zerbitzuetan hutsune handiak ikusten ditu txostenak, batez ere aisialdirako aukerei eta merkataritza alternatibei dagokienez. Arrasaten aisialdirako eta merkataritzako gune handi baten beharra ikusten da, gabezia horri erantzuteko. Oñatin ere golf zelaia egitea planteatzen da, Garagaltza-Berezaingo inguruetan. Informazio gune orokor bat ere Elorregin egongo da, harreko zerbitzu moduan, eta guztia osatzeko hotel eta ostatu eskaintza hobetzea proposatzen da txostenean; baita camping eta egoitzekin ere.



Udalaitz natur gune babestu izateko asmoa

Dagoeneko bi natur gune babestu daude gurean: Urkiolako eta Aizkorrikoko. Udalaitz eta inguruak duen balioa ikusita natur gune babestu izendatzeko proposamena egiten da.

Ikerkuntza zentroak alor ekonomikorako

Garaia Berrikuntza poloa Arrasaten; Oñatin, Garagaltza-Berezaingo parke teknologikoa eta Eskoriatzan, Esteibarren Jarduera Berritzaileendako parke bat egongo da.

EAE-ko hirien sistema barruan sartuko da

Hala, Jaurlaritzak lurralde antolamenduan Hirien Sistemaren txertatuko du Debagoiena eta erkidegoko laugarren gunea izango da. Helburua "Euskal Hiria" delakoa osatzea izango da.

OSTATUA. Txostenak ostatu zerbitzuetan ahalegina egin beharra azpimarratzen du. Eskoriatzan dagoeneko ireki dute bat eta beste bat eraikitzen ari dira. Arrasaten, Oñatin eta Bergaran beste zortzi daude eskaintza osatzeko.

URKULU. Behin behineko plana 2004ko uzailean eman zuten jakitera eta esaten zen Urkulun *eko-hiria* delakoa egiteko asmoa zegoela. Egitasmoa bertan behera geratu da eta Urkuluk hezegune babestu izatera izango du.

ARDATZA. Eibar-Gasteiz autobidea izango da datozen urteetako garapeneraren ardatza. Komunikazioan ibarrak duen hutsune handia beteko da horrela. Txostenean hori ere ezinbestekotzat jotzen da, Beasain-Durangorekin batera.

KIROLGUNEA. Arrasateko kiroldegia izango da ibarreko kirolerako gune nagusia. Horren osagarri, pilotarako, Bergarako pilotaleku nagusia izango da, eta Elgetakoa, zaletu mailetako norgehiagokendako proposatzen dute.

«112»
SOS
DEIAK

Hemen
GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

IRIARTE
Umeen denda
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

TOKI
ALAI
TABERNA
Karajiloetan
espezializatua
Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

BAINURAKO LEKUAK GUREAN



Arrasaten, Musakolako igerilekuak daude zabalik, eta baita Uxartekoak ere, Udala auzoan. Kanpokoak dira denak.

GOIENKARIA

IGERILEKUAK ETA URTEGIAK | LANDAKO ETA GARAIKO PARKEAK BARNEALDEKO 'HONDARTZA' BEREZIAK BIHURTU DIRA

Egunotako beroari aurre egiteko hamaika igerileku ditugu gurean

Irailaren erdira arte egongo dira zabalik. Sei irekiak dira eta bost estaliak. Bainurako beste aukera bat inguruan dauden urtegiak dira

Monika Belastegi

Udako denboraldia bete betean dugu. Debagoiendar batzuk oporretan daude, dagoeneko, eta beste batzuk laster hartuko dituzte oporrak, abuztuarekin batera. Udako oporretan kanpora joateko ohitura du herritarren gehien goak, baina etxean geratuz gero, bada gurean bainu freskagarri hartzeko aukera: igerilekuak.

Debagoieneko bost herritan dauden igerilekuak: Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, guztira hamaika –kanpoko sei eta barru-

ko bost–. Denak udal igerilekuak dira, Arrasateko bi igerileku pribatu izan ezik.

Denboraldiari dagokionez, irailaren erdialdera emango diote amaiera guztiek –egun gutxi-

ko ezberdintasunarekin–. Beste alde batetik, igerileku gehien inguruan dago eguzkia hartzeko terraza edo solariumen bat, kafetegia... eta guztietan, nola ez, sorosleak.

TARIFAK

Azpiko taulan dago uztail eta abuztuko zerbitzuaren laburpena. Hala eta guztiz ere, badira horren gainean kontuan hartu beharreko ohar gehiago.

Igerileku guztietan, kirol zerbitzuko bazkide edo Debagoieneko kirol txartel bateratuaren jabe ez direnek, eguneko sarre- ra edo bonuen artean aukera dezakete. Mota askotako bonuak

Igerilekuen uztaileko eta abuztuko ordutegia

	Zenbat	Mota	Ordutegia	Prezioa (Heldu/Ume)	Zerbitzuak	Itxita
ARRASATE Musakola	3	Kanpokoak	09:30-20:30 egunero, denboraldi osoa	5,35 € / 2,65 €	Terraza, ping-pong mahaiaik eta janari-edari makinak	Denboraldi osoa zabalik
ARRASATE Uxarte jatetxea	2	Kanpokoak	10:00-20:30, egunero, denboraldi osoa	5,00 € / 4,00 € / 3,00 €	Terrazak, hamakak, kafetegia	Denboraldi osoa zabalik
BERGARA	1	Estalia	Uztaila: astegunak, 07:00-21:00; asteburua, 09:00-21:00 Abuztua: 09:00-21:00 egunero	3,75 € / 2,55 €	Zelaia, hamakak (doan, aurtun lehenengoz)	Denboraldi osoa zabalik
OÑATI	2	Estalia	Uztaila: astegunak, 09:00-21:00; asteburua, 10:00-20:00 Abuztua: egunero, 10:00-20:00	4,80 € / 2,40 €	Terraza, berdegunea eta kafetegia	Abuztuko astelehenetan
ARETXABALETA	1	Estalia	Uztaila: astegunak, 09:30-21:30; zap., 09:00-13:30/15:00-20:00; dom., 09:00-13:15 Abuztua: 09:00-13:00, egunero	3,75 € / 1,90 €	Gimnasioa eta rokodromoa erabiltzeko aukera	Uztailaren 1a eta abuztuak 7tik 27ra
ESKORIATZA	2	Estali bat eta ireki bat	Estalia, denboraldi osoa: astegunetan, 9:00-21:00. Zap., 10:00-20:00. Dom., 09:30-14:30 Ireki, denboraldi osoa: ast.-zap., 10:00-20:00; dom., 10:30-14:30	3,65 € / 2,00 € (6 urtera arte doan)	Solariuma eta hamakak	Abuztuaren 14tik 20ra

BAINURAKO LEKUAK GUREAN

daude: heldu edo umeendakoa, familiarra, ikasle eta langabeendako tarifa bereziak... Tarifak desberdinak dira herriaren arabera. Esaterako, Arrasaten, pertsona heldu batendako hamar eguneko bonu bat 41,70 euro kostatzen da; Oñatin, 38,00 euro; Bergaran, 34,35 euro; Eskoriatzan, 32,65 eta Aretxabaletan, 28,55 euro. Bestalde, kontuan hartu behar da ume eta helduendako prezioen muga-adina desberdina dela herriaren arabera.

BERGARAKO KIROLGUNEA

Bergararrek igerileku berria estreinatuko dute irailean 16an. Herritarrendako kirol arreta zerbitzua ere han zabalduko dute. Hori horrela, irailaren 1etik 15era zabalik egongo da bulego hori agiria egiteko, kirol ikastaroetarako izena emateko eta beharrezkoa den informazioa jasotzeko. Bulegoaren ordutegia izango da: astegunetan, 09:00-13:00 eta 17:00-20:30; zapatuetan, 09:00-13:00.

Irailaren 16an irekiko dute Agorrosingo igerileku berria, hori horrela, egun horretan eta hurrengoan sarrera libre izango da eta hainbat jarduera egin eta ikusteko aukera egongo da.

Irailaren 18an hasiko dira Agorrosingo kiroldegia normal funtzionatzen. Kirol ikastaroak ere orduan hasiko dira. Aurten, gainera, bada berrikuntza bat: irailaren 14an ikastaroetarako zozketa egingo dute.

Bazkide ez direnek egun baterako txartela edo bonuak eros ditzakete

Bergaran irailaren 18an hasiko da Agorrosingo kiroldegi berria normal funtzionatzen

URTEGIAK | DEBAGOIENDAR ASKOREN AUKERA DIRA INGURUKO URTEGIAK

Arretaz, baina bainatu ahal izango da asteon Landako urtegian

M.B.

Landako eta Garaioako bainurako gunek oso leku erakargarriak dira debagoiendar askorendako, eta ez bakarrik debagoiendarrentzat. Izan ere, 150.000 lagun egon ohi dira, batez beste, uda sasoiko hilabeteetan Garaion bakarrik. Egun eguzkitsua eta beroetan 6.000tik 8.000 lagunera bitartean batu daitezke Landa. Kontuan hartzekoa da, hainbat eskualderen eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren elkargunea dela. Hilabetei dagokionez, jende gehien ekaineko eta uztaileko asteburuetan joaten da, eguraldia lagun izanez gero. Abuztuaren jaitsi egiten da zertxobait kopurua.

ASTERO NEURTZEN DUTE URAREN KALITATEA

Arabako Foru Aldundiko adituak astelehenetan joaten dira ur-biltegiotara laginak hartzera. Laginak aztertu ondoren, egubakoitzean, emaitza jakinarazten diete Garaio Eskualdeko Parkeko Informazio-etxeko ardura-dunei: uraren kalitatea zein den eta, ondorioz, bainatzea komenigarria den edo ez jakinarazten diete. Hala, Garaio Eskualdeko Parkeko Informazio-etxeko sorosleek dagokion bandera jarriko dute Garaion eta Landan.

Garaiori dagokionez egingo azkeneko laginek diote uraren kalitatea ona dela eta ez dagoela bainatzeko inongo arazorik.

Landan, aldiz, bestela dira gauzak: aurreko astean debekatu egin zuten bainua hartzea uraren kalitatea eskasa zelako. Asteon uraren kalitatea onargarria dela diote eta bainatu



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Aisialdirako leku egokiaz gain, naturgune garrantzitsua ere bada Garaioako parke naturala.

ahal izango dela aurreratu dute Garaio Eskualdeko Parkeko Informazio-etxeko sorosleek, baina, arretaz.

BESTE ZERBITZU BATZUK
Egonaldia erosoagoa egiteko hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte Garaioak eta Landak.

Garaioak ditu: komunak, zazpi dutxa, bost iturri, umeak bainatzeko bi gunek berezi, informazio gunea, jateko gunea (mahairik gabe) eta aparkalekua. Landak, berriz: komunak, lau dutxa, bi iturri, umeak bainatzeko gunek berezi bat, jateko gunea (mahaiekin) eta umeendako jolas tokia. Hain justu, aparkalekua da Landaren hutsune nabarmenetako bat, eta hori igarri egiten da egun jendetsuetan.

Egun eguzkitsuetan 8.000 lagun inguru batzen dira Landako urtegian

Aparkaleku falta da Landaren hutsune nabarmenetako bat



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



GIOKELA FESTA | ARRASATEKO GOIKOBALU ABESBATZAK ANTOLATUTAKO JAI



JOSETXO ARANTZABAL

Giokelako harakinek saiheskiak erre zituzten herriko plazan egindako Giokela festan.

Saiheskia, dantzariak eta musika Giokela festan

Goikobaluko abesbatzakoek egin zuten festa. Argentinara joateko dirua batzea zuten helburu

Goreti Elortza

Zapatuan 19:30etan eman zitzaion festari hasiera Arrasateko plazan. Giokela haragi pintxo eta edaria 2 euroko txartelen truke jarri zuten salgai.

Hasieran jende gutxi hurbildu bazen ere, azkenerako jende ugari animatu zen Giokela dastatzera. Gainera, trikitilari, dantzari eta musika argentinarrak animatu zuten festa eta horrek animatu egin zituen herritarrak jaiarekin bat egitera.

Goikobalu abesbatzakoek antolatutako jaiak urrian Argen-

tinara egingo duten bidaiarako dirua lortzea zuen helburu. Urriaren 6tik 15era joango dira abesbatzako 36 abeslari, 5 laguntzailer eta 4 trikitilari Argentinara. Abesbatzaren zuzendari Iñaki Maidaganek esan zigunez, Cordoba probintziako Euskal Astean hartuko dute parte eta hiru kontzertu emango dituzte. Cordoba probintziako Villa Marian eta Cordoba hirian izango dira horietako bi eta Buenos Aires ondoko Carlos Paz herrian hirugarrena. "1998an joan ginen eta esperientzia galanta izan zen, jendeak primeran hartu gintuen.

Hala ere, 13 emanaldi egin genituen 19 egunetan eta oso nekegarria izan zen, distantziak oso luzeak ziren eta. Aurten 9 egun pasako ditugu eta ez dugu horren bidaia luzerik egingo", adierazi zuen Maidaganek. Festaren inguruan galdetzean, "hasieran jendea beldurtuta bezala egon da", esan zigun. "Baina pixkanaka jendea animatzen joan da. Edalontzi mordo garbitu ditut, eta hori seinale ona da!", gehitu zuen.

TRIKITILARIAK ETA KARIBEKO DANTZAK

Giokela festan Argentina aldeko musika, Karibeko dantzak eta trikitilariak ere izan zuten lekua. Herriko plazan jardun zuten giroa alaitzen.

Goikobalu abesbatzakoak pozik agertu ziren festak herrian izandako erantzunarekin.


• FESTARA BATU ZIREN



HARITZ ETA IGOR |
ARRASATE

"Txistulero eguna ospatu du gure taldeak gaur"

Nazioarteko VII.Txistulero Eguna ospatu zuten zapatuan Arrasateko txistulariek. "Bazkaria izan dugu eta herriko plazan giro polita ikusita hemen gelditu gara pote bat hartzen...". "Goikobaluko lagunak gara eta geroxeago jango dugu zerbait", esan ziguten.



ESCOLASTICO ETA ANGEL |
ARRASATE

"Zapaturo egin beharko lirateke horrelako jaiak"

Oso ondo iruditu zitzaion bi gizon hauei Goikobaluko festan. "Haragia pixka bat gogorra dago, baina oso ona", zioen bikoteak. "Gaineralagundu egin behar da horrelakoetan, halako ekitaldiak baitira herria animatzen dutenak", gaineratu zuen Escolasticok.



MAIDER, AMAIA ETA JONE | ARRASATE

"Abesbatzakoek irailean egingo dugu esker oneko kontzertua, lagundu diguten guztiei eskerrak emateko"

Goikobalu abesbatzako hiru kide hauek aurkitu genituen Abesbatzako kamiseta eta diskoak saltzen. "San Juanetan ere egin genuen antzeko festa bat eta jendeak oso ondo erantzun zuen", esan zuen hirukoteak. Argentinarako bidaiaren inguruan galdetzean, joateko gogo bizia dutela aitortu zuten. "1998an ere joan ginen hara eta oso esperientzia ona izan genuen. Aurten egun gutxiago pasako ditugu han baina topera aprobetxatuko dugu".

• GIOKELA JAIAN IKUSITAKOAK



GIOKELA PINTXOAK. 2 eurotan jarri zituzten Goikobalu abesbatzakoek okela pintxo eta edarirako txartelak. Txartelak erosi eta gustura asko jan zituzten hurbildu zirenek Giokelako harakinek emandako okelarekin egindako pintxoak. Horrela, prezio onean afaldu, musika eta dantzekin gozatu eta Goikobalukoekin kolaboratu ahal izan zuten.



KARIBEKO DANTZAK. Arrasateko gazte talde batek Karibeko dantzak egin zituen herriko plazan. Rueda kubana, tangoak eta beste zenbait dantza ederki dantzatu zituzten taldekoek. 20:30ak inguruan izan zen emanaldia eta jende ugari batu zen euren inguruan. Zenbaitzuk dantza berriak ikasten ere ahalegindu ziren.

Egubakoitzean utzi zuten aske Anjel Iturbe hilabete Fresnesen egon eta gero

Egubakoitzeko gauerdia aldera iritsi zen Iturbe Biarritzera eta han egin zioten harrera

Jon Berezibar

Dagoeneko etxean da Anjel Iturbe arrasatearra hilabete Fresnesen espetxeratuta egon ostean. Grande-Marlaska eta Le Vert epaileek zuzendutako operazioan atxilotu zuten Iturbe ekainaren 20an etxean zegoela.

ETAkide izatea eta finantzaketaz arduratzea leporatzen zioten epaileek eta beste 12 euskal herritarrekin batera atxilotu zuten. Egubakoitz gauerdian iritsi eta Biarritzen bertan egin zioten lehen ongietorria. Orain hamabostean behin Donibane Lohitzuneko polizia-etxean sinatu beharko du. Aske geratu bezain laster kartzelako baldintzak salatu zituen Iturbek, barruan utzitako kideez gogoratuz. Era berean, galdeketa luzeak eta goitik beherako miaketak salatu zituen kartzelatik irtetea.

Eskoriatzako Kontzejupek errespetu falta egotzi dio EBri

EBk alderdien legea injustua dela esan arren, "horren aurka ezer egin ez dutela eta irtenbiderik ere ez dutela proposatu" ekarri die gogora Kontzejupek

M.B.

Eskoriatzako Ezker Batuak *Ezkerti* aldizkariaren zenbakian Eskoriatzako Kontzejupe herri plataformaren gainean esandakoaren harira, hiru urtetan udaletxean izandako ibilbidea azaldu dute plataformako kideek erredakziora bidalitako oharrean.

Kontzejuperen esanetan gauza asko aipa daitezke idatziaren gainean, "baina hiru urtetan Kontzejupek ez duela ezer egin esatea errespetu falta" iruditzen zaie, "batez ere, Udalean parte hartzen egon diren zinegotzi hautetsiekiko: hiru batzordetan parte hartu dugu, Euskara sailaren ardura Kontzejuperena da, eta gai ezberdinen gainean egin diren bilera berezietan parte hartu dugu (etxebizitza, gizarte gaiak, gazteria, ...)", azaldu dute Kontzejupekoek. Botorik izan ez arren batzordeetara joaten jarraitu dutela ere azpimarratu dute, "gure betebeharrak zela uste dugulako".

Horrekin batera leporatu diote Ezker Batuari, alderdien legea injustua dela esan arren, "egoeraren aurrean ez duela ezer egin; ezta egoerari buelta emateko irtenbiderik proposatu ere".

Kontzejuperen esanetan, *Ezkerti* aldizkarian "baliabideak baditugula dio Ezker Batuak, baina gogorarazi nahi diegu garrantzitsuena falta zaigula: erabakitze ahalmena, batzorde bat baino gehiagotan argi laga diguten bezala". Horrekin batera azpimarratu dute "dagokiguna eskatzen jarraituko dugula, hau da, 3 zinegotzi izatearen eskubidea

PARTEHARTZEA ERRAZTEKO AKORDIOA

Legealdiaren hasieran, akordio bat lortu zuen Kontzejupek EA eta EAJ alderdiekin udalean euren parte-hartzea errazteko. Hala ere, "guk beti planteatu izan dugu dimisioen bidez dagozkigun postuak betetzea, LOREG legearen 182. artikulua aukera hori ematen duelako", azaldu dute plataformakoek.

Dimisioei dagokienez, horiek eskatzean, pertsonalki inoren kontra" ez doazela azpimarratu dute: "Ez dugu inor meatxatu, betetzen duten kargu publikoari eskatzen diogu erantzukizuna".

Botorik izan ez arren, batzordeetara joaten jarraitu dutela azpimarratu dute

Dagokiena eskatzen jarraituko dutela dio Kontzejupek: hiru zinegotzi izatearen eskubidea, hain justu



JOSETXO ARANTZABAL

Magdalenako ermita berria inauguratu zuten zapatuan Maalako parkean.

Magdalenako ermita inauguratu zuten elgetarrek

Magdalenako ermita modernoa, lehenengo ermita zegoen inguruan egin dute; Magdalenaren irudia ere hara eroan dute

Goreti Elortza

Zapatuan, Magdalena egunean hain justu, elkartu ziren Elgetako herritarrak Magdalenako ermita inauguratzeko.

11:00etan eraman zuten Magdalenaren irudia parrokiatik ermita berrira. Magdalena ospitalea izan zenaren kaperan aurkitzen zen lehenengo irudia, zenbait urtetan San Sebastian kofradia bildu zen lekuan. Hala ere, ermita eraitsi zutenean parro-

kiara eraman zuten. Ermita berria egin dutela-eta, Magdalenaren irudiak badu bere behin betiko lekuaermita berrian.

Ama Birjina eroan eta gero, gramofonoa ipini zuten herriko plazan eta etxafuegoak jaurti zituzten.

BEDEINKAPENA ETA LUNCHA
13:00etan, herritarrak ermita berriaren inguruan elkartu ziren eta Juan Kruz Juaristi herriko parrokoak bedeinkapena eman

zuen. Herriko alkatea den Patxi Basaurik ere hitz egin zuen eta esan zuen 1580. urte inguruan jasotako ermita zaharra gogorazteko ipini dutela ermita moderno berria. Udaletxea eta gotzaindegiak hartutako akordioa izan da eta Magdalena eguna aprobetxatu dute adostutakoa betetzeko.

Herritarrak ere pozik agertu ziren ermita berriarekin, aurreko ermita gogorazteko aproposa iruditu zaie eta. Inaugurazioaren ostean luncha egin zuten ermita ondoan.

Bestalde, alkateak Maalako parkearen inaugurazio ofiziala datorren irailean egingo dutela aurreratu zuen.

LAN ESKAINTZA

ARANZADI IKASTOLAK

ondorengo profila duen pertsona behar du
2007ko KILOMETROEN KOORDINATZAILEA aukeratzeko:

Antolakuntzarako ahalmena duena.

Giza harremanetarako gaitasuna duena.

Lantaldean aritzeko eta haiek dinamizatzeko gaitasuna duena.

BIDALI CURRÍCULUMAK HELBIDE HONETAR irailaren 8a baino lehen: bergara@ikastola.net

Aranzadi Ikastola / San Martin plaza 4
20570 BERGARA Tel: 943 76 90 71





ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Zortzi urtean lehenengo aldiz elkartu dira euskara batzordeak.

Fagorreko eta Edesako euskara batzordeen bilera

Duela zortzi urte lanean hasi zirenetik lehenengo aldiz elkartu ziren barikuan 13 batzordeak Fagor Etxetresenetako lantegian

Jon Berezibar

Egubakoitzean egin zuten Fagor Etxetresnak eta Edesako euskara batzordeen arteko lehen topaketa Arrasateko Fagor Etxetresnen *show-roomean*. Batzordeetako kideez gain, Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta Kike Amonarrizek hartu zuten parte ekitaldian. Azken horrek bere esperientziaren gaineko hitzaldia egin zuen kideen aurrean. Euskara Batzorde guztietako ordezkariek egon ziren, 13 guz-

tira, eta 90 lankidetik gora elkartu ziren topaketan. Horrela, batzordekideak motibatu, errekonozimendua azaldu eta elkar ezagutzeko aprobetxatu zuten lehen topaketa hau.

1998 urtean ekin zieten euskara planei Fagor Etxetresenetan. Dagoeneko 8 urte igaro direnean 3.500 langileri eragiten diote egitasmoek eta kooperatibaren Gestio Planen barne sartzea lortu dute. Hori izan zen, besteak beste, egubakoitzeko topaketan azpimarratu gura izan zuten helbu-

ruetako bat. Egindako aurrerapenez ere hitz egin zuten, bai idatziz zein ahoz, eta euskararen presentzia handitu egin dela aipatu zuten.

Helburu argia daukate: "Langileek kooperatibako arlo guztietan lana euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izateko baldintzak lortzea". Hizkuntzen errespetua eta inguruarekiko konpromisoa aipatzen dituzte ardatz moduan eta euskararen erabilera barne zein kanpo harremanetarako sustatu gura dute.

Kike Amonarrizen hitzaldiarekin eta ostean egindako hausnarketarekin, arratsaldeko seiak aldera amaitu zuten topaketarekin.

EB: "Interes pribatuaren garaipena da Guilbertekin sinatutako hitzarmena"

EBk salatu egin du PP, EA, PSE-EE, talde mistoa eta Gelmaren akordioa eta alternatibak proposatu ditu

Goreti Elortza

Arrasateko Ezker Batua-Berdeak "lotsagarritzat" jo zuen barikuan PP, EA, PSE-EE, talde mistoa eta Javier Guilbert Obenerrekako administratzaileak Gelmako etxebizitzaren hari sinatutako akordioa.

"Lotsarena, interes pribatuaren arrakastarena, interes publikoaren porrotarena, espekulazio irribarretsuarena, berme politikoa duen *pelotazo inmobiliarioarena* eta hiri-negozioaren argazkia"; hala definitu zuen Ander Rodriguez, taldeko bozeramaileak, hitzarmena.

Aipatutako akordioa, eraikuntza hitzarmena desblokeatzeko eta Gelma enpresako lanpostuak bermatzeko egin zutela azaldu zuten sinatzaileek egunean. Ezker Batuak, ordea, barikuan adierazi zuen akordioaren edukiak eraikuntza-operazioa ikertzen diharduen Euskal Kontu Auzitegira eta Fiskaltzara bidaliko dituela.

Prensaurrekoan Ander Rodriguez egueneko akordioa horrela deskribatu zuen: "hitzarmenarekin Obenerrekak Udaletxeari 2 milioi euro emango dizkio, eta horren truke, operazioarengatik 58 jasoko ditu irabazitan". Rodriguezek gehitu zuen "interes pribatuaren aldeko operazio hutsa" dela.

Akordioaren alternatiba moduan zera proposatu du: "eraikuntzetako batek 114 etxebizitza aske izateko tasatuta-koetara aldatzea, gutxi gorabehera 150.000 eurotako salneurrian. Horrekin, modu berean, Obenerrekak Gelmari lurreratik 30 milioi euro emango lizkioke". Bestalde, proposatu du, "gutxienez pisuen %55a babestutakoak izatea; hala, sustatzaileak jasoko lukeen gainbalioa txikitu, eta, era berean, Gelmari ia berdina ordainduko litzaiok".

Gelmaren iraunkortasunaren inguruan, Ander Rodriguezek "lurren salmentarekin baldintzatutako bermea, berme birtuala" dela adierazi zuen.

Bukatzeko, alokatze aseguru kolektiboa izenpetzeko eskatu zuen Rodriguezek. Horrela, enpresak langileentzat poliza bat ezarriko luke langabezia dauden denboran euren soldatuk babesteko. Gainera, poliza horrek berrezarpenarekin soldatek izan lezaketen galera ere orekatuko lukeela dio Rodriguezek. Bestalde, "berme hori dirua dagoen bitartean ezarri behar" dela ere gehitu zuen Arrasateko zinegotziak.

"114 etxebizitza salneurri finkoan jartzea izan daiteke aukera"

"Gelmaren iraunkortasunaren gaineko bermea birtuala da"

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-mail onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

/4quattro4	/dukiena	/gorkagarai	/merkeopari	/udalatz
/argi-plastik	/ego	/gorkataxi	/multiopticas	/udalaitz
/arregi	/elejalde	/gutzizeder	/ohiak	/urdeki
/atai	/ezkutuorly	/irudisport	/okipark	/markiegi
/azkarate	/gallastegi	/korozabaleta	/vitoria	/urbietta
/joseba	/ganesha	/maulanda	/pando	/otzeta
/BZ-sistemas	/garaia	/mayte	/richimaier	/dragon-oriental

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.litura.com
www.baster-alde.com
www.ehmf.com



DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

◆
INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com



Alkate ohiak osoko bilkuraren lehenengo lerroan eseri ziren. Bergarako alkate Victoriano Gallasteti ere gonbidatu zuren ekitaldira.

ALKATEEN MUGIMENDUA | 1976KO UZTAILAREN 21A EKARRI ZUTEN GOGORA ORDUKO HAINBAT ALKATE ETA ZINEGOTZIK BARIKUAN BERGARAN

Aldarrikapen berberak 30 urte beranduago

1976an 63 udaletako ordezkariak batu ziren herri eskubideak eta udal funtzioa aldarrikatzeko

Barikuan 11 herritako ordezkariak batu ziren Bergarako pleno aretoan eta egun hura ekarri zuten gogora

Monika Belastegi

Duela 30 urte, 1976. urteko uztailaren 21ean, -foruak ezeztatu zituztela 100 urte betetzen ziren- 63 udal ordezkari batu ziren Bergaran. Herriko plaza jendez lepo zegoen eta udal ordezkariak -alkate eta zinegotziek- desfilea egin zuten norberak bere herriko izenarekin eta banderarekin herritarren aurrean. Gero, udaletxeko osoko bilkuren aretora sartu ziren eta, han, *No es facil* izeneko idatzia irakurri zuen Jose Luis Elkorok, herritar guztiendako.

Barikuan berriz entzun ahal izan genuen Elkororen diskurtso hura -egun hartako DVDa egin dute- Bergarako osoko bilkuren

aretoa bertaratu ginenok, tartean, orduko 15 udal ordezkari. Txema Urrutiak idatzitako *Alcaldes en lucha. El Grupo de Bergara en la Transición, 1975-1979* liburuaren aurkezpena izan zen ekitaldirako aitzakia. Baina, aldi berean, duela 30 urte egindako lan guztiaren gorazarre ere bai.

Duela 30 urteko 11 alkate batu ziren: Jose Luis Elkorok (Bergara), Jose Antonio Altuna (Arra-

sate), Iñaki Aristizabal (Oiarzun), Juan Ignazio Uria (Azkoitia), Patxi Basauri (Elgeta, oraindik alkate da), Prudencio Larranaga (Legazpi), Pablo Gorostiaga (Laudio), Luis Arkauz (Oñati), Jose mari Kortabarria (Antzola) eta Jesus Mari Errasti (Aretxabaleta).

ALDARRIKAPEN BERBERAK

Jose Luis Elkorok Bergarako alkate ohiak azaldu zuenez, "orduko zentralismoarengatik udaletxeak eskumenik gabe zeuden eta herriaren eskubideak zanpatuta zeuden. Herriak hainbat nahi zituen eta guk jakin izan genuen nahi eta gogo horiek bideratzen". Orduko eskaera garrantzitsuenak ere ekarri zituen gogora Elkorok: amnistia, ikurrina, euskararen legalizazioa, 1931ko Lizarrako estatutua... Eta horren haritik azpimarratu zuen modu batera edo bestera "orduko aldarrikapen bizirik jarraitzen" dutela. Hori horrela, gaur egun agintaritzan daudenei eskaria ere egin zien, hain justu, "aldarrikapen horienatik borrokatzeko eskatzen diet. Helburu horiek lortzea baita Euskal Herriarendako bakea lortzea". Elkororen aldarrikapenekin bat

"Agintariei eskatzen diet aldarrikapen horienatik borrokatzeko"



Txema Urrutiak Alcaldes en lucha liburu aurkeztu zuen.



Herritar ugari batu zen. Arnaldo Otegi ere ekitaldian izan zen entzule gisa.

egin zuten hitza hartu zuten Altuna eta Muruak.

ENTZULE UGARI EKITALDIAN
Herritar ugari joan zen ekitaldira. Entzule gisa ere han izan

ziren, besteak beste: Batasuneko Arnaldo Otegi, Mikel Zubimendi eta Aitor Arantzabal; Aralarreko Juan Martin Elexpuru eta Udalbiltzako lehendakari Loren Arkotxa.

Albiste izango da

DEBAGOIENA | KANPALDIAREN BARRUKO EKINTZA DA

AHTren kontrako ibilaldia eta bilkura egingo dute martitzenean

AHTaren Aurkako Asanbladak urtetik urtera antolatzen duen kanpaldia Urbinan egingo dute aurten, hilaren 21etik 30era bitartean. Obren hasierari oposizioa egin nahi dio ekimen horrek, besteak beste. Kanpaldian egingo dituzte ekitaldien artean gurea ere etorriko dira: hilaren 25ean, hain justu, egun osoko mendi martxa egingo dute *Proiektu txikitzaileak gelditu!* lelopean. Egingo duten ibilbidea da: Zarimutz-Mazmela-Aramaio-Garaia-Arrasate. Bukaeran, 18:30 aldera, elkarretaratzea egingo dute Garaian eta 19:00etan kalejira Arbolapetan.

BERGARA | URRIAREN 16AN ZABALDU GURA DUTE

Haurreskola berriaren izena emateko lekua dago oraindik

Hasi dituzte dagoeneko haurreskola egiteko lanak. Martinez de Irala kalean, Aranzadi ikastola dagoen eraikinean zabalduko dute. Hala, kanpotik ez dute eraikinarekin itxura aldatuko, lan guztiak barruan egingo dituzte eta aurrekontua 198.000 eurokoa da. 0 eta 2 urte bitarteko umeendako izango da eta 55endako lekua izango du.

Urriaren 16an zabaldu nahi dute eta oraingoz 10ek eman du izena. Urtarrilean berriro zabalduko dute matrikulazio epea ordutik aurrera eramateko umeak haurreskolara. Dena den, urritik abendura bitartean eraman nahi duenak ere badu oraindik tokia eta aukera.

DEBAGOIENA | BARIKUAN DEITU DUTE LEHEN BILKURA

Presoen "egoera kezagarria" salatuko dute hainbat mobilizaziotan

Bost presoren egoera dela eta kezka azaldu du Arrasateko Etxerarek. Batetik, salatu dute Arrasateetik 1.000 km ingurura dagoen Fleury Merogis kartzelan duten Igor Letona mitard-ean dela, hau da, isolamendu osoko zigor ziega batean. Bestalde, salatu dute Navalcarneron dagoen Unai Paroten bizi baldintzak gogortu egin direla. Zabarterenak ere gogortu egin direla aurreratu dute. Horrekin batera, gogora ekarri dute, legearen arabera Jose Inazio Gaztandaga eta Jon Agirrek aske egon beharko luketela.

Hori guztia salatzeke mobilizazioak deitu dituzte datozen egunotarako: uztailaren 28an, Herriko Plazan; 29an, Beasaingo Hotel Castilloren aurrean eta abuztuaren 8an, Mutrikuko Saturraran hondartzan.

LEINTZ GATZAGA | HANDIK ONA BI ETORRIKO DIRA

Autobus bakarra pasatuko da Gasteiz alderantz abuztuan barrena

Pesa enpresako autobusaren ordutegiak aldaketa izango du abuztuan. Egunean bi autobus pasatzen dira orain Gasteizerantz, baina abuztuaren 1etik 31ra bakarra helduko da: 15:30ean. Gasteiztik Gatzagara, ostera, lehen bezala bi etorriko dira: 12:55ean eta 20:55ean. Gau-txoriak jarraitu egingo du abuztuan. Eskoriatzatik pasatuko da Gatzagarantz: 01:55ean eta 04:30ean. Taxi-busaren ordutegiak, aldiz, ez du aldatetarik izango, Udalak jakinarazi duenez. Eskoriatzan aterako dira Gatzagara: 11:30ean eta 19:00etan; eta Gatzagatik aterako dira Eskoriatzara: 11:40an eta 19:10ean.

ESKORIATZA | EGUAZTEN ETA EGUENEAN

Apotzagako zabortegearen harira batzarrak deitu dituzte lurjabeekin

Aldundiak jakinarazi du autobidean, Aretxabaleta eta Eskoriatza bitarteko Basagoiti II izeneko zatian proiektuak aldaketa bat izango duela. Hala, eman dute aditzera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Aldaketa hori Apotzagaren egin gura duten zabortegeari dagokio. Horren ondorioz, zabortegea hasieran aurreikusitako baino beherago jarriko dute. Hortaz, zabortegea egiteko zelai gutxiago hartuko dituzte eta horrez ordez erreka alboko lurrak erabiliko dituzte. Hala Aldundiak azaldu du desjabetzeak egingo dituzte. Horren berri emateko eguazten eta egunean batzarrak deitu ditu.

Hitzorduek

TURISMOA EGITEKO | Ibarraundi, gatz museoa eta beste turismo zerbitzu batzuk, zabalik

Bertakoek eta kanpokoek honako turismo zerbitzuak izango dituzte zabalik abuztuan: Ibarraundi museoa (argazkian, talde bat bisitaldian), turismo bulego lanak ere egiten dituen; Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoak; eta Arantzazuko turismo informazio gunea.

Zabalik egongo da baita ere Leintz Gatzagako gatz museoa. Izan ere, hiru bisita gidatu emango ditu egunero: 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. Aitziber Gorosabelek, arduradunak, Edurne Marteloren laguntza izango du hil osoan. Leintz Gatzagako Labidea denak ere zabalik jarraituko du astelehenetik domekara.



ARAMAIO |

• **Internetez aseguruak kontratatzen ikasteko aukera**
Zure aseguruak kontrata ezazu izeneko Internet ikastaroa emango dute gaur, astelehena, KZgunean, 10:00-11:00.

• **Odol-ateratzeak egingo dituzte abuztu hasieran**
Abuztuaren 2an, eguaztena, etorriko dira odola ateratzera, 16:30etik 20:30era.

• **San Estebanen omenezko jaiak izango dira Uribarrin**
Abuztuaren 5ean, meza, euskal dantza emanaldia, karta txapelketak, erromeria eta bolo txapelketa izango dituzte; 6an, karta txapelketako finalak, umeendako jolasak, plater-tiroketa eta auzo afaria.

• **Andra Mari jaiak ospatuko dituzte bi auzotan**
Andra Mari jaiak abuztuaren 15ean eta 16an ospatuko dituzte. Barajuena, hilaren 15ean, meza, vermouthe dantza, karta txapelketak, erromeria... izango dira; 16an, auzoko bazkaria eta afaria elizpean, eta pilota partidu ikusgarriak. Oletan, hilaren 15ean, txistularien emanaldia eta meza izango dituzte; hilaren 16an, meza, auzotarrendako bazkaria eta dantzaldia.

ARETXABALETA |

• **Donezteben asteburua pasatzeko izenematea**
Loramendi euskara elkarteak Doneztebeko Burrumba talde-

arekin trukea egingo du, eta hara joango dira uztailaren 29a eta 30a pasatzeko. Izena emateko aukera dago 685 75 67 29 zenbakira deituta. Asteburua antolatzeko batzarra uztailaren 27an, eguena, egingo dute Loramendin, 19:00etan.

• **Santiago jaiak ospatuko dituzte Goroeta auzoan**
Santiago jaietako azken egunak dira Goroetan. Gaur, astelehena, umeen eguna da; bihar, martitzena, meza nagusia eta luntxa izango dituzte.

• **Andra Mari jaiak ospatuko dituzte abuztu erdialdean**
Hilaren 14an hasiko dituzte Andra Mari jaiak. Hilaren 17ra bitartean, koadrilen animazioa, denetariko musika emanaldiak, txirrindularitza proba, pilota partiduak... izango dira.

ARRASATE |

• **Lau auzotako jaiak izango dira irailera bitartean**
Uztailaren 26an, Ferrerías kaleko bizilagunek jaiak ospatuko dituzte; Kanpanzarkoek San Inazio eguna ospatuko dute, hilaren 31n, eta Udalan ere egun horretan hasiko dira jaiak, abuztuaren 2ra bitartean. Abuztuaren 24an, Uribarri auzoko jaiak hasiko dira.

BERGARA |

• **Santiago jaiak ospatzen dihardute Basalgo auzoan**
Gaur, astelehena, mus txapel-

keta jokatu dute, 16:00etan; bihar, zapatua, meza, txirrindulari igoera, pilota partiduak... izango dira.

• **San Kristobal jaietako zozketako irabazlea**
Agertu da San Kristobal jaietako zozketako sariduna. Inma Bideluze izan da, 0841 zenbakidun txartelarekin. Getaria-ko landetxe baten asteburuko egonaldia eta gastuetarako 200 euro irabazi ditu.

• **Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztena**
Odola emateko aukera izango da hilaren 26an, eguaztena, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

ELGETA |

• **Goimendi auzokoak, Santiago jaiak ospatzen**
Gaur, astelehena, gauean hasiko dira jaiak, berakatz zopajanarekin. Bihar, martitzena, meza, dantzaldia, bertsolariak... izango dira.

OÑATI |

• **Trianako jaietako zozketako txartel sarituak**
Trianako jaietan egin zuten zozketan, zenbaki hauek irten dira: 1.430, lehenengo saria, Oxi kirol dendan erosketa bonoa; 1.318, bigarrena, Madalenako gasolindegian bonoa; eta 4.302, hirugarrena, Urriagain jate-txean afaria. Sarituek hilabeteke epea daukate saria eskatzeko.

Iritziak




Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Arrasateko igerilekuaren prezio "eskandalagarria"

Irakurle batek aipatu duenez "aurrekoan Arrasateko kiroldegiko igerilekura joan eta sarreraren prezioarekin haserretuta itzuli" zen. Dionenez, sartzeko kobratzen dituzten 5,35 euroak "eskandalagarriak" dira. "Zerbitzu eskasarekin eta igerilekuak dauden egoera ikusita, lotsagarria da hainbeste kobratzea", dio irakurleak, eta gehitzen du: "Egiten dabilzan lanekin hautsez betetzen da guztia eta zerbitzu publiko bat izateko prezioa gehiegizkoa da, inondik inora". Zerbitzu duina eta arrazoizko prezioduna eskatzen du irakurleak; azaltzen duenez, "Udalako igerilekuak bezain beste balio du Musakolakoak, baina hura pribatua da eta Musakolako publikoa."



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Sarean harrapatuta

Adopzioan hartuko zenuke atzerriko ume bat?

Espainiar Estatuan iaz 5.423 haur hartu zituzten adopzioan. Gehienek Txina, Errusia, Kolonbia edo Etiopiako umeak adoptatzen dituzte. Gurean ere urtetik urtera gehiago dira kanpoko umeak adopzioan

hartzen dituztenak. Batzuek beste umerik ezin dutelako izan hartzen dituzte; beste batzuek, ordea, ume horiek laguntzeko. Goiena.net-en gaiaren gainean galdetu dute eta hemen dituzue iritzi batzuk.

HAUREN EGOERA HOBETU BEHAR DA

Nik bi seme-alaba ditut, baina betidanik izan dut buruan atzerriko haur bat adoptatzea. Txinako neskatila bat edota etiopiar bat gustura hartuko nuke adopzioan. Dena dela, tramite horrek denak nagitu egiten nau eta gainera dirutza bat dela esan didate. Nik uste dut tramite horiek azkartu eta erraztu egin behar litzuketela. Izan ere, haur asko daude oso egoera latzetan umezurtegietan eta haur horiei bizi kalitate hobea emateko atzerriko gobernuak ez lirateke horren gogorrak izan beharko. Hala ere, neurri bat eta kontrol bat izan behar dute, horrekin guztiz ados nago, baina pasa gabe...

Laila / www.goiena.net

EZKONDU BAINO NAHIAGO ADOPTATU

Jende askok dirua gastatzen du ezkontza bat antolatzen. Nik nahiago dut diru hori ume bat adopzioan hartzen gastatzea. Bera bizi den lekuan irtenbide asko ez dituen ume bat hartuko nuke, Txinako neskatila bat edo.

Jaione / www.goiena.net

NIRE UMEA IZATEA NAHIAGO DUT

Ahal izango banu behintzat, nik nahiago dut nire umea edukitzea.

Ez nuke adoptatuko. Oso zaila egingo litzaidake beste baten umea nik zaintzea eta etxean edukitzea nireak izango balira moduan. Lagundu egingo nuke, baina adoptatu ez.

Apadrinau / www.goiena.net

HAURRA NIRE SABELEAN IZAN NAHI DUT

Nik haur biologikoa izateko desioa daukat. Izan ere, haurra zure sabelean izatearen sentsazioa bezalakorik ez dago. Dena den, biologikoaz gain ere izango

nuke Txinako neskatila bat. Batez ere, oso aberasgarria izango litzatekeelako bai guretzat eta baita haur biologikoarentzat ere. Haurrek hezkuntza aberatsagoa izango luketela uste dut. Dena den, oso nekeza eta garestia dela entzun dut. Izan ere, haur bat Txinatik ekartzeko hiru bat urteko prozesu luzea pasa behar da eta bidaia asko egin behar dira Txinara. Eta horrek suposatzen duen karga ekonomikoa ez dugu ahaztu behar.

Miren / www.goiena.net

NAHI DUTENAK ANIMATZEN DITUT

Beti nahi izan dut ume bat adoptatu. Berdin dit nongoa den, baina gauza zoragarria iruditzen zait behar duen bati laguntzea. Munduan ume asko dago behar eta lagundu behar diegula uste dut. Modu bat litzateke adopzioa, baina beste mila modu daude. Hala ere, adopzioarekin zure buruari ere laguntzen diozu.

Nik badut lagun bat duela gutxi ume bat ekarri duena eta egia da tramite asko egin behar direla, baina helburuak merezi duela uste dut. Batzuek ezingo dute adoptatu, dirurik ez dutelako. Baina, ahal dutenak eta nahi dutenak animatu nahiko nituzke adoptatzera.

Oier / www.goiena.net

www.goiena.net

Hartuko zenuke adopzioan atzerriko haur bat?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo
www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Estatuan, hurrengo eguneko pilularen eskaria hirukoiztu egin da azken lau urteetan. Zergatik



JOSE RAMON SERRANO |
ANTISORTZE ELK. PRESIDENTEA

Kontua da pilula lortzeko errazagoa dela orain. Zenbait erki-degotan doakoa da eta lehen mailako arreta zerbitzuetan erraz lor daiteke. Gaur egun pilulok ez dira hain bortitzak eta azken urteetan asko aurreratu da, kontraindikazioak gutxituta. Beraz, ez da erlaxazio kontu hutsa.



MIKEL SANCHEZ |
OSPITALEKO ZERBITZU-BURUA

Artatu ditugun kasuetatik gure susmoa da preserbatiboa ez dela egoki erabiltzen, nahiz eta guk emandako pilula kopurua nabarmenki igo ez den. Antza gazteek pilula antisorgailu moduan erabiltzen dute, baina ez dakite zer eragin daukan, ezta ere gaitzak ekiditeko ez duela balio.



EIDER ARTZELUS |
SEXOLOGOA

Egia da asteburuetak antisorgailu bezala erabiltzen dela pilula hau. Gehientsuenek badaezpada bezala erabiltzen dute, nahi gabeko haurdunaldirik ez egoteko, ondorio negatiboei jaramonik egin gabe eta beste hainbat faktore zintzilik lagata (adibidez: hiesa, ETSak...).



LARRAITZ ARANDO |
ARRASATEKO SEXOLOGIA BULE.

Sexualitatea koitoarekin berdintzen duen jendarte baten ondorioa da eta sexu hezkuntza beharrezkoa da. Hala ere, horren erabilera legitimoa da; garbi edukiz, ez dela metodo antikontzeptibo bat (eta ez duela gaixotasunetik babesten), emergentziatzeko pilula bat dela.

Egunkarietako harribitxiak

UDARO HIRU GAZTE GERATZEN DIRA ELBARRI

Ur gutxi dagoen guneetara salto egiteagatik elbarri geratzen dira hiru gazte, udaro, Gipuzkoan. Orotara 1.300 elbarri dago Gipuzkoan. Urtero 15 kasu berri ematen dira: %80 trafiko istripuen ondorioz eta %5 ur gutxi dagoen lekuetara salto egiteagatik.

'El Diario Vasco'
2006-07-23



AMAK ALOKATZEN DITUZTE AEB-N KATALOGO BIDEZ

Espainiako ehunka bikote joan ei da AEBetara alokairuzko amak kontratatuzko. Halaxe zioen atzo *El País* egunkariak egindako erreportajearen. 60.000 eta 75.000 euro bitartean ordaintzen dute umetokia lagako dien emakume batengatik. Californiako enpresa batek dio abuztuan zortzi bikote joango direla hara kontratuak

formalizatzen. Espainian ilegala da hori egitea, baina AEBetan hedatuta dago: hainbat enpresak katalogoak jarri dituzte euren webguneetan eta klik bakar batekin euren uteroa lagatzen duten emakumeen argazkiak ikus daitezke. Gehienak 25 eta 35 urte bitartekoak dira eta aurrez ama izandakoak. Eurak 16.000 euro ingururekin geratzen dira.

'El País'
2006-07-23



Zorroztailea



Gerizpean patxadan

Euskal Herriko elezhar batek dio Ekhi eta Poliki hitzak elkartzen badituzu, egun eguzkitsua eta giro ona sortzen dela. Ekhipoliki. Oraindik egiteko dago, horixe da onena. Eta gaur bertan hasiko da, zuk nahi baduzu. Ekhipoliki. Ez da logikoa. Baina, benetan nahi badugu, lor dezakegu.

'Berria.info' | 2006-07-22

Izaera euskalduna konpainiaren markaren ezaugarri nagusi eta fideltasun gako bihurtzen denean arrisku bat dago ordea: taxuzko zerbitzu bat ematen ez bada, eta telefono konpainietan horren ugariak diren gehiegikeriazko hutsegiteak gertatzen badira, markak berak eta haren enparau guztiek itzala galtzen dutela.

Alegia, konpainia hori aukeratzeko erabiltzen den zioa jada ez dela arrazoa, bihotza baino. Kontuz orduan, zeren arrazoa erabiltzeke bihotzarekin soilik aukeratzeko denean, maitasuna ikaragarria izan daiteke, baina gorrotoa ere, dagoen gordinena.

Aholkua udarako beraz: ekia baino hobe, gerizpean. Poliki bai, astiro eta patxadan. Eta euskaraz disfrutatzeko, ba, adibidez, *Brooklyngo erokeriak* irakurri. Jakina, telefona ahaztuta. Ondo pasa oporrak.

Elena Laka

Egin dezagun kontu euskal kontsumitzaileok erosterakoan garrantzia ematen diogula erosgaiaren jatorriari. Pentsa dezagun antzerako bi produkturen aurrean, euskaldunok Euskal Herrian egindakoa eta publizitatean euskara dabilena kontsumitzeko joera dugula. Horrelako ondorioetara iritsiko ziren zenbait enpresa, eta hortik aterara dira "gure kafea", "gure esnea" eta "gure produktuak" publizitate kanpainak.

Euskaltel telefono konpainiaren kasuan, publizitate kanpaina irudimentsuen bitartez aspertu arte azpimarratu eta errepikatu digute konpainiaren euskalduntasuna, berau enpresaren balorerik ia nabarmenena izango balitz bezala. Primeran euskara erabiltzeari, ganoraz, eta azalean baino zerbait gehiagotan erabiltzen bada.

"Izaera euskalduna konpainiaren markaren ezaugarri nagusi eta fideltasun gako bihurtzen denean arrisku bat dago"

"Taxuzko zerbitzua ematen ez bada, eta gehiegikeriazko hutsegiteak emanez gero, markak berak eta enparau guztiek itzala galtzen dute"

Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-VII-23

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

ELKARRIZKETA

"Zapaterok ETaren elkarrizketa hastera zihoala iragarri zuenean, esan zuen ezin zutela eztabaida politikoa nahasi baketzearekin. Gero euskaldunen erabaki ahalmena errespetatuko duela esan zuen. Horrekin, nahasketa sortzen du, eta aitzakia ematen dio PPri tiroka hasteko. Eta Batasunekoak erori egin dira halako trikimailu txiki batean".

Patxi Zabaleta
2006-07-23

'Noticias de Gipuzkoa'

ELKARRIZKETA

"Gakoa da prozesuaren ostean sortuko ote den erabakitze eskubidea izango duen euskal subjektu politikoa berria. Ondorio horretara iritsi nahi dugu guztiok, posible balitz akordio baten oinarrituta. Baina horrela ez bada, ez da gatazka konponduko, ETA desagertu arren. Eta horri erantzuteko ez dira behar ez zortzi hilabete ezta zortzi urte ere".

Joseba Egibar
2006-07-23

'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

"PSEK bukatuko du tesi nazionalistei atsegina eman nahi guran, ETaren tesiak barne. Dagoeneko horretan dabil, eta moztarrik gabe. Eta izango da Ibarretxe planaren edo Otegi planaren gainean. Honezkerok egin dute berba ETArekin horri buruz eta dagoeneko sartu dira Anoetako kodeetan".

Carmelo Barrio
2006-07-23

'Gara'


ELKARRIZKETA

"Ni gaur ez naiz gai esateko zenbat mahai osatuko diren. Luze joko du gauza asko eztabaidatu beharko ditugulako. Nik nahiko nuke mahai baten konponduko balitz gutia, baina uste dut ez dela posible izango. Agian urtebetera bai. Mahai bat izan, bi edo hemezortzi, EAJk ikuspuntu bateratua erango du".

Iñaki Gerenabarrena
2006-07-23

KIROLA

- Golfean, Mikel Galdosek ez zuen txapelketako mozketak gaintu | 20
- Oñatiko plazako pilota txapelketako finalerdiak bihar jokatu dira | 20



Nielka Ibaruren
eta Ander
Zarketarekin izan
gara igeriketaz
hitz egiten | 21

ARAMAIOKO RALLYSPRINTA



Santi Artetxek Peugeot 307 WRC autoarekin parte hartu zuen zapatuko proban.

JOSETXO ARANTZABAL

RALLYSPRINTA | AZPIKO RAGING TALDEAK ANTOLATUTA 5. EDIZIOA JOKATU ZEN ZAPATUAN

Pronostikoak bete zituen Artetxek Aramaioko rallyan

Santi Artetxeren eta Joseba Zapirainen arteko lehia ez zen iazkoa bezain estua izan. Bien arteko aldea 3 segundokoa izan zen

Mireia Bikuña

Iaz irabazlea Joseba Zapirain izan zen final estu baten ondoren. Bi pilotuek denbora berdina egin zuten arren txapeldun Zapirain izan zen lehen txanda irabazi zuelako.

Zapatuko proba ez zen hain estua izan. Lehen txandan Joseba Zapirainek (Seat Ibiza Kit Car) eta Ruben Gartziak (Ford Escort Cosworth WRC) denbora berdina egin zuten, 04:11:00. Santi Artetxeren (Peugeot 307 WRC) den-

bora 04:11:08 izan zen. Bigarren txandan Gartziak 11 segundo galdu zituen. Hala, lasterketa irabazteko lehia Zapirain eta Artetxeren artekoa zen. Hirugarren txandan, Mañariako pilotuak 4 segundo atera zizkion Zapiraini. Hiru txandetako denborak batu ondoren, Santi Artetxek eskuratu zuren garaipena.

DEBAGOIENDARRAK

Aramaioko Azpiko Racing taldeak antolatuta burutu zen zapatuan rallysprintaren bosgarren

edizioa. 45 gidarik eman zuten izena lasterketarako; baina irteera 39 autok hartu zuten eta, proba 33 autok amaitu zuten.

Haritz Errastik eta Ander Oionek euren klaseko autoen artean onenak izan ziren

Izena emanda zuten 45 autoetatik 39k hartu zuten parte rallysprintean

Parte-hartzaileen artean bi izan ziren debagoiendarrek gidatutako autoak: 33. zenbakiduna, Iker eta Igor Orobengoarena eta 40.a Haritz Errasti eta Ander Oionena. Lasterketa polita egin zuten bi autoek. Haritz Errasti eta Ander Oion aramaioarrek gainera lehengo klaseko autoen artean denbora onena egin zuten. Iker eta Igor Orobengoak aldiz, hirugarren klaseko autoen artean 7. tokian amaitu zuten proba.

IKUSLE GUTXIAGO

Zapatuan eguraldi bikaina egin arren, sentsazio horrekin geratu ginen rallysprinta ikustera hurbildu ginenok. Beste edizio batzuetan baino ikusle gutxiago hurbildu zen.

Hala ere, ikuskizun politaz gozatu ahal izan genuen Aramaioko batu ginenok.

Sailkapena

LEHENENGO KLASA

1. H. Errasti/A. Oion (13:47:90)
2. I. Gerediaga/I. Gerenaba (13:58:70)
3. R. Lapuente/J. Sanz (14:02:20)

BIGARREN KLASA

1. A. Barrueta/J. Zuazua (13:08:00)
2. G. Rodriguez/E. Artetxe (14:59:30)
3. A. Uranga/U. Beristain (15:59:90)

HIRUGARREN KLASA

1. I. Zelaia/M. Saizar (13:44:70)
2. I. Alustiza/C. Gartzia (13:46:70)
3. G. Antxustegi/X. Aulestia (13:48:60)

LAUGARREN KLASA

1. S. Artetxe/S. Fernandez (12:29:80)
2. J. Zapirain/J.M. Perez (12:33:30)
3. R. Garcia/A. Perez (12:42:70)

GAZTE MAILA

1. M. Agirre/M. De la Torre (14:12:10)
2. A. Lopez/I. Corres (14:46:20)
3. G. Rodriguez/E. Artetxe (14:59:30)

SCRATCH (SAILKAPEN OROKORRA)

1. S. Artetxe/S. Fernandez (12:29:80)
2. J. Zapirain/J.M. Perez (12:33:30)
3. R. Garcia/A. Perez (12:42:70)

DEBAGOIENDAR ONENAK

11. H. Errasti/A. Oion (13:47:90)
19. I. Orobengo/I. Orobengo (14:02:80)

ARAMAIOKO RALLYSPRINTA



Ikusle batzuk bide ertzean kokatu ziren lasterketa ikusteko.



Ogitartekoa jateko tartea ere izan zuten zaleek.



Luciano Arrabal irteera hartzeko prest.



Rallyan parte hartu zuten autoak txanda noiz hasiko zain daude.



Errasti eta Oionek, 40 zenbakidun autoarekin, zaleen animoak jaso zituzten.


• HORRELA IKUSI DUTE RALLYSPRINTA GIDARIEK ETA ZALEEK



SANDRA FERNANDEZ ETA SANTI ARTETXE |
VILLASANA MENA (BURGOS) ETA MAÑARIA

"Iaz ez bezala, gaurko lehenengo txandan lan ona egin dugu. Eta gero denbora hobetzeko gai izan gara"

"Gu saiatu gara lehen txandan denbora ona eginen. Zapiarainek eta Gartzia denbora hobea egin duten arren, gustura gaude txanda horretan egindako lanarekin. Azkeneko bi txandetan gure denborak mantendu ditugu. Aramaioko proba lasterketa oso polita da; igoera nahiko motela da baina jaitsiera oso azkarra da. Datorren urtean ere hementxe izango gara".



HARITZ ERRASTI ETA ANDER OION |
ARAMAIO

"Oso pozik gaude garaipenarekin. Lehenengo txandan autoa ez da ondo ibili, baina gero zortea izan dugu"

"Lehenengo txandan autoa ez da behar bezala ibili. Hala ere Iban Gerediagaren autoak egindako denbora berdina egin dugu. Bigarren eta hirugarren txandetan denborak hobetu ditugu. Zortea izan dugu. Etxeko proba izanik oso pozik gaude garaipenarekin. Iaz ez genuen parte hartu arazo tekniko batzuen ondorioz. Gaur proba amaitu dugu eta irabazi egin dugu gainera".



JOSU, ESTHER ETA MAITANE |
ARAMAIO

"Herrikoak izanik Haritz Errasti eta Ander Oion animatzera etorri gara. Askok gustatzen zaigu Aramaio rallysprinta baina gaur ikusle gutxiago etorri da"

Koadrilan igo ziren argazkiko lagunak rallysprinta ikustera. Aramaio-koak dira eta haientzat zita garrantzitsua izaten da. "Gustura etortzen gara proba ikustera. Gu, bereziki, Haritz Errasti eta Ander Oion animatzera etorri gara. Ea zortea duten eta emaitza ona lortzen duten", esan ziguten. Primerako eguraldia egin arren, beste urte batzuetan baino ikusle gutxiago egon zen. "Guk ere nabaritu dugu. Uztailako zubiagatik edo, baina gaur ez da hainbeste ikusle etorri rallysprinta ikustera. Eta hori eguraldi ona egiten duela", azaldu ziguten.

Iruditlan



AMAIA ANDUEZA

Igeriketa. Argazkiko igerilariek Nojako itsas lasterketan hartu zuten parte zapatuan. 3.500 metroko distantzia duen proban Bergarako 3 igerilarik eta Oñatiko 10ek parte hartu zuten. Bestalde, zapatuan jokatu zen Ondarroako proban 4 oñatiar egon ziren.



JOSETXO ARANTZABAL

Herri kirolak. Oñatiko Madalena auzoko jaiei amaiera emateko, Mikel Alzola eta Angel Arrospide herri kirolean aritu ziren atzo. Meza ostean, egurra mozten eta harri jasozten aritu ziren bi kirolariak Madalengan. Ondoren, auzokoekin bazkaria izan zuten.



ARANTZAZU EZKIBEL

Saskibaloiko teknifikazio entrenamenduak Arrasaten. Txus Brizuelaren gidaritzapean 40 mutiko aritu ziren Arrasateko Iturripe kiroldegian saskibaloiko teknifikazio entrenamenduetan. Asteon egin dituzte entrenamenduak, arratsaldero.



SAN JOXEPE ELKARTEA

Igeldo-Orio mendi ibilaldia. Bergarako San Joxepe elkarteko 38 lagunek Igeldo eta Orio arteko mendi ibilaldia egin zuten eguenean. Bergaratik autobusez joan ziren Donostia-ra. Ibilaldiari Igeldon eman zioten hasiera. Mendiz mendi, Oriora heldu ziren Bergarako lagunak. Orioko kanpinean bazkaldu zuten eta arratsaldean, hondartzan izan ziren. Argazkia, Orioko itsasargiaren aurrealdean aterata dago. Eguraldia lagun, giro onean pasa zuten eguna Gipuzkoako kostaldean San Joxepe elkarteko lagunak.

SHARON STONER

DANBAKA)))))) LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA

DISKO BERRIA ZURE ESKU



**ESKAITZA
BEREZIA
ASTELEHENKO
GOIENKARIKO
HARPIDEDUNENDAKO**

CDa + etxean jasotzea*: **10 euro**

Harpidedun ez bazara, harpidetu orain eta jaso CDa etxean* **DOAN**



ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Egin zure eskaria uztailaren 21a baino lehen!

Deitu telefono honetara: **902 36 38 51** 9:00etatik 18:00etara

EDO harpidedun bazara, eta nahiago baduzu, bete kupoia eta bidali:

Harpideduna (Izen abizenak)

Kalea..... Herria.....

Telefonoa.....

Bidali kupoia GOIENARA: 132 posta kutxa 20500 ARRASATE

*Astelehenko Goienkariako banaketak onartzen duen kasuetan bakarrik.

Botak jantzi eta lanean hasi

Preferente mailan ibarreko hiru talde arituko dira: UDA, Mondra eta Aloña Mendi

Bergarako taldeak lehenengo erregionala utzi eta mailaz igotzea izango du helburu

Bi talde berri izango ditugu bigarren erregionalean: Mondra eta Elgeta

Arantzazu Ezkibel

Lanean hasi dira ibarreko futbol taldeak. Denboraldia amaitu zela hilabete eta erdi pasa da. Tarte horretan, atse-den hartzeko denbora izan dute jokalarik eta zuzendariak.

Orain, botak jantzi eta baloia abian jartzeko ordua iritsi da. Ibarreko talde gehienek joan den astean hasi zituzten entrenamenduak. Bi astez entrenamendu saioak egingo dituzte, gero abuztuan, oporretara joan ahal izateko.

LAGUNARTEA SORTZEA

Futbol taldeetako entrenatzaileek adierazi diguten bezala, entrenamendu hauen helburua, taldeko kideek elkar eza-gutzea eta lagunartea sortzea da.

Abuztuko etenaren ostean, iraileko txapelketen eta lagunarteko partiduen ordua izango da. Abuztuaren 31n eta irailaren 1ean eta 2an Bergarako txapelketa jokatu da. Han, UDA, Mondra, Antzuola eta Bergara izango dira. Lehenengo partidua Bergarak eta Antzuolak jokatu dute eta bigarrena UDAk eta Mondrak. Gero, finala eta hirugarren eta laugarren postuak jokatu dira.

Irailaren 3an Arrasateko hiruko txapelketa jokatu dute UDA, Aloña eta Mondrak. Txapelketa horiez gain, Aloñak Iintxa eta Antzuolaren aurka lagunartekoak jokatu ditu eta Bergarak Elorrioren auka.

DENBORALDI ZAILA

Preferente mailako hiru taldeentzat, denboraldi zaila izango da aurtengoa. Txapelketak aldaketak izan ditu; horrela, datorren denboraldian 18 talde egongo dira preferentean eta horietatik lau mailaz jaitsiko dira.

Preferente mailan 18 talde arituko dira. Talde horietatik lau maila galduko dute

Iraila hasieran Arrasateko eta Bergarako txapelketak jokatu dira



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak ez du ia aldaketarik egin denboraldi berriari begira.

ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA

Iazko ilusioa mantentzea izango da helburu nagusia

Oñatiarrak hasi dira denboraldi berriari begira. Astean lau entrenamendu egin dituzte. Oñatiko Ibarra zelaian aritzeaz gain, Zumarragako futbol zelaian ere izan dira eta asteen Legazpira joateko asmoa dute.

“Entrenamendu hauen helburua, erritmoa hartzea da. Hila-beteko oporraldiaren ostean, botak jantzi eta baloia ukitzen hastea da garrantzitsua”, adierazi digu Aitor Orueta Aloñako entrenatzaileak. Abuztuan 15 eguneko etena izango dute eta hilaren 16an berriro ere entrenamenduetara itzuliko dira oñatiarrak.

EGUNEROKO LANA

Iazko denboraldi ona eta gero, Aloña preferente mailako fabritoen artean izango da aurtengoa. Aitorrek, baina, argi dauka zein den Aloñaren helburua denboraldi berrirako: “Gure helburua, iazko ilusioa eta intentsitatea mantentzea izango da. Eguneroko lana ondo egitea izango da garrantzitsua”.

Taldeak ez du aldaketarik izan. Bi jokalarik taldea utzi dute eta gazte mailatik hiru igo dira. Jokalari gazte hauek taldearen dinamikan sartzea izango da aurtengoa helburuetako bat. Horretarako, irailean, Arrasateko txapelketaz gain beste bi lagunarteko jokatu dute oñatiarrak.

Taldea

PRESIDENTEA

Jabier Azpiazu

ENTRENATZAILEAK

Aitor Orueta
Ismael Egaña (2. entrenatzailea)

ATEZAINAK

Jon Ander Elgarresta
Iñigo Idigoras
Gorka Otamendi

ATZELARIAK

Aritz Agirre
Julen Barrena
Aitor Lopez
Aritz Losada
Iker Maiztegi
Iker Olalde
Andoitz Biain
Xabier Carpintero

ERDILARIAK

Unai Arregi
Iban Astola
Xabier Elgarresta
Jokin Garai
Aritz Garmendia
Mikel Sanchez
Iñigo Zubia

AURRELARIAK

Iker Aramendi
Iñigo Arregi
Jon Astigarraga
Henry Bazan
Xabier Camino
Roberto Idigoras
Unai Moia



JOSETXO ARANTZABAL

Bi aste daramate Aretxabaletakoek entrenamenduetan.

UDA KIROL ELKARTEA

Fitxaketa berriekin, UDAk talde orekatua osatu du

“Uztaileko entrenamenduek, jokalariek berriei taldeko ohiturak erakusteko balio dute”, esan digu Felix Recio, UDAko entrenatzaileak.

Bi aste daramate aretxabaletarrek aurre-denboraldia prestatzen. Astean hiru entrenamendu egiten dute. Alderdi fisiko lantzen ari dira, baina Felixek dioenez: “Orain egindakoak ez du ezertarako balio, Abuztuan ez bada ezer egiten”.

TALDE OREKATUA

Hirugarren mailatik etorritako jokalariren bat ere ibiliko da datorren urtean UDAn. Hala, Felix Recio gustura dago osatu duten taldearekin: “Taldea orekatua lortu dugu. Postu guztiak sendotu ditugu, aurrealdea izan ezik. Baina fitxaketa onena, iazko jokalariek mantentzea izan da, duda gabe”.

Oporraldiaren ostean, abuztuaren 18an itzuliko dira jokalariek entrenamenduetara. Orduan, egunero entrenatuko dira. Iraileko lehenengo astean bi txapelketa jokatzeko konpromisoa dute aretxabaletarrek: Arrasatekoa eta Bergarako.

“Denboraldi berrirako helburua, lehenengo partidua irabaztea izango da”, esan zigun Felix Recio. 18 taldeko maila izatean, oso denboraldi parekatua espero da preferentean.

Taldea

PRESIDENTEA

Jokin Antxia

ENTRENATZAILEAK

Felix Recio
Aurelio Calzon (2. entrenatzailea)
Xabi Lasagabaster (atezainen entre.)

DELEGATUA

Javier Etxeberria

ATEZAINAK

Mikel Mondragon
Gaizka Eriz

ATZELARIAK

Jon Iregi
Gorka Iturbe
Raul Sanchez
Jon Torres
Mikel Sanchez
Ibon Gonzalez
Joseba Gonzalez
Ekihotz Alustiza

ERDILARIAK

Igor Arenaza
Erik Gartzia
Ruben Leonardo
Akaitz Garai
Haritz Igartua

AURRELARIAK

Igor Arriaga
Iban Espinosa
Iker Orueta
Imanol Rodriguez
Kepa Azkue
Garikoitz Dublan
Iñaki Uribeetxeberria

dira ibarreko futbolariak

Aloña Mendi, UDAk eta Mondrak irailaren 10ean hasiko dute denboraldia

Erregionaleko taldeek aste bete geroago hasiko dute denboraldia; irailaren 17an

Aurtengoa, lehenengo denboraldia izango da Elgetako futbol taldearentzat



ARANTZAZU EZKIBEL

Taldea oraindik guztiz zehaztu gabe du Mondra taldeak.



JOSETXO ARANTZABAL

Aldaketa gehien jasan duen taldea da Bergara.

MONDRAGON FUTBOL ELKARTEA

Aldaketa gutxi egin dute denboraldi berrirako

Astelehenean hasi zituen entrenamenduak Mondra taldeak. Joan den aste guztian entrenatu zuten, egunero, egubakoitza izan ezik Atxabalpeko zelaian.

Uztailan egiten diren entrenamenduek, taldeak elkar ezagutzeko balio dutela esan zigun Igor Gordobil Mondra taldeko entrenatzaileak. "Iazko ia talde bera izango dugu aurten, beraz, guztiak ezagunak gara. Hala ere, entrenamendu hauek, konfiantza hartzeko balio dute", azpimarratu zigun Igorrek.

DENBORALDI ZAILA

Irailean hasiko den denboraldia zaila izango dela esan zigun Igorrek. "Aurten, 18 talde egongo gara preferente mailan, eta horietatik 4 jaitsiko dira, beraz, gogorlan egin beharko dugu maila ez galtzeko", esan zigun Mondrako entrenatzaileak. "Gure helburua, maila mantentzea izango da", gaineratu zigun.

Uztailan egindako lanak abuztuan ere jarraipena izan behar du. Horretarako, Mondra taldeko prestatzaileek abuztuan egin beharreko ariketak jarriko dizkiete jokalariei.

Oporretatik bueltan, aurre-denboraldiko partiduak jokatu dituzte; lehenengo Bergarako txapelketa eta gero Arrasatekoa. Irailak 10 hasiko den denboraldirako prestaketa izango da.

Taldea

PRESIDENTEA

Jose Luis Azkarate

ENTRENATZAILEAK

Igor Gordobil
Iban Aranguren (prestatzaile fisikoa)

FISIOTERAPEUTA

Larraitz Madariaga

ATEZAINAK

Ander Ruiz de Azua
Mikel Calvo

ATZELARIAK

Argider Arana
Andoni Amutxastegi
Iker Laspiur
Aitor Alartzia
Ruben Rueda
Kepa Mercader
Markel Gonzalez

ERDILARIAK

Jon Loiti
Julen Aranbarri
Maikel Hernandez
Illart Etxeberria
Iban Garai
Arkaitz Garmendia
Gotzon Urtzelai
Ander Bereziartua
Josu Zubikarai
Julen Losada

AURRELARIAK

Iker Lopez
Ekain Garin
Julen Eriz

BERGARA KIROL ELKARTEA

Mailaz igotzea izango da bergararren helburua

Begararen helburua, aurten ere, erregional maila utzi eta preferente mailara igotzea izango da. Iaz gertu izan zuten helburua, baina azkenean ez zen gauzatu iguera. Hala ere, bergararrek argi dute zaila izango dela. "Aurten, lehiakortasun handiagoa egongo da erregional mailan. 8 bat talde egongo gara goiko postuetarako lehian, eta bakarra igoko da", esan digu Neka Galan entrenatzaileak.

Denboraldi berrirako, Neka Galan Bergarako entrenatzaileak aldaketa asko egin ditu. 14 jokalarik taldea utzi dute eta beste hainbeste berriak izango dira. Beraz, mahoneroen lehenengo helburua taldea osatzea izango da. "Jokalaria berri asko ditugunez, lehenengo lana, taldea zehaztea izango da", esan zigun Bergarako entrenatzaileak.

DEFENTSA GOGORTU

Taldeak jasan dituen aldaketa hauen helburu nagusia, defentsa gogortzea izan da. "Egin ditugun aldaketa hauekin, defentsako hutsunea betetzea nahi izan dugu", adierazi zigun Neka Galanek.

Abuztuak 21 itzuliko dira oporretatik eta ordurako, taldea osatua egongo da. Irailean, Bergarako txapelketa eta Elorrioren aurkako lagunartekoa jokatu dute mahoneroek.

Taldea

ENTRENATZAILEAK

Neka Galan
Netzar

FISIOTERAPEUTA

Alberto Laskurain

DELEGATUAK

Bittor Gomez
Lutxi Herzog

ATEZAINAK

Julio Hernandez
Ander Sesma

ATZELARIAK

Josu Agirrezabal
Mikel Gallastegi
Andoni Nafarrete
Jon Urteaga
Eldin Zijojevic
Aitor Azpiazu
Mikel Oregi
Asier Ibarrodo
Ander De Luis
Gorka Larrñaga
Antxon Ugalde
Markel Laspiur

ERDILARIAK

Unai Agirre
David Canas
Eloi Crespo
Mikel Otero
Julen Urtado
Ander Amazorraín
Juan Nuñez
Joseba Errasti
Markel Ilzarbe
Xabier Gisasola

AURRELARIAK

Imanol Cabanillas
Martin Ibañez
Jokin Pavo

• BESTE TALDEAK

Bi talde berri izango ditugu ibarrean; Elgetan eta Arrasaten

Bi talde berri arituko dira bigarren erregional mailan datorren denboraldian. Talde hauek Elgeta eta Mondra izango dira. Baina horiek ez dira bigarren erregional mailan arituko diren ibarreko talde bakarrak izango. Antzuola eta UDAko bigarren taldea ere maila berean izango dira.

HELBURU EZBERDINAK

Lau talde hauen helburua ezberdina izango da. Antzuolak txapelketa ona egin eta mailaz igotzea izango du helburu. Andoni Azkargorta izango da entrenatzaile berria. Entrenatzaile kargua hartu zuenean esan zigun bezala, mailaz igotzeko moduko taldea dauka Antzuolak. Iaz igoera fasea jokatu zuten baina ez zuten igotzea lortu.

UDAK, denboraldi ona egin eta ahalik eta goren amaitzea izango du helburu. Mondra, talde berria izango da bigarren erregionalean. Helburu nagusia, mailari neurria hartzea izango da. Bidez batez, gazteei preferentera jauzia egin aurretik futbol maila batera egokitzekeo balioko die.

Elgetarrak ere bigarren erregionalean arituko dira. Oraingoz 21 jokalariz osatutako taldea dute. Jokalariak taldearen arduradun eta sortzaile izan dira. Unben hasi dira entrenatzen eta partiduak ere han izango dira.

Antzuolak lehenengo erregionalerako igotzea izango du helburu nagusia

Elgeta Unben entrenatzen hasi da eta partiduak ere Eibarren izango dira

Futbola

• REALEKO BIRA 2006



JOSETXO ARANTZABAL

2x2ko partiduak jokatu zituzten Bergarako haurrek.

Realeko Bira gurean da umeen gozamenerako

Atzo Bergarara iritsi zen Realeko Bira 2006. Agorrosinen izan zuten hitzordua gaztetxoek

Arantzazu Ezkibel

Realeko Bira 2006 ibarrera iritsi zen atzo. Agorrosinen haurrentzako jolasgunea jarri zuten, futbolarekin zerikusia duten jokoetan aritzeko.

6-14 URTEKO UMEENTZAT

Biraren helburua, Reala Gipuzkoako herrietara hurbiltzea da. Hala, uztailaren 22tik irailaren

9ra arte, Gipuzkoako 15 herri ezberdinetan barrena ibiliko da Realeko Bira.

Jolasgunea 6-14 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Han, joko ezberdinetan parte hartzeko aukera dute gaztetxoek, beti ere begiraleen agindupean. Atzo, Agorrosinen, baloiak jaurtitzeko dituen gailua, doitasun atea, 2x2 futbol zelaia, haurren gunea eta Play Station

gunea jarri zuten haurren gozamenerako.

BESTE HERRIETAN

Realeko Bira ibarreko beste herri batzuetan ere izango da. Hilaren 26an Arrasaten egongo da jolasgunea eta 27an, berriz, Aretxabaletan. Jolasgunea arratsaldeko 4etatik 8etara egongo da zabalik. Haurrek ez dute ezer ordaindu behar izango.

Golfa

Mikel Galdosek nahi baino lehenago utzi zuen Madrileko txapelketa

Arantzazu Ezkibel

Madrileko Peugeot Tour sariko mozketa maila ez zuen gainditu Aretxabaletako golf jokalaria. Hala, egubakoitzean txapelketa at geratu zen Mikel Galdos.

SAILKAPENEN 41. POSTUAN

Txapelketa Madrileko Club de Campon jokatu zen. Eguenean egin zituzten lehenengo jaurti-

ketak eta Mikel Galdosek 73 kolpe egin zituen. Egubakoitzean, berriz, 77 kolpe egin zituen aretxabaletarrak. Emaiza horiekin, ez zuen mozketa gainditu ibarreko golf jokalaria. Madrilekoa, Peugeot Tour sariko zazpigarren proba izan zen. Sailkapen orokorrean 41. postuan dago Galdos. Gaur, Andorrako bidea hartuko du Kataluniako txapelketa jokatzeko.



ARTXIBOA

Madrilekoa Peugeot Tour txapelketako zazpigarren proba izan zen.

Txirrindularitza

Xabier Arnaiz oñatiarrak bizikleta hautsi zuen Espainiako txapelketan

Xabier Arnaizek ezin izan zuen zapatuan Coruñan jokatu zen Espainiako txapelketako errepideko proba bukatu. Oñatiarrak, lasterketako lehenengo itzulian bizikleta hautsi zuen. Hala, ez zuen txapelketa amaitzerik izan. Taldekako erlojupeko proban, Euskadiko selezioarekin hartu zuen parte, eta laugarren postua eskuratu zuten.

Pilota

Plazako pilota txapelketako finalerdiak bihar, eta finalak, barikuan

Mireia Bikuña

Oñatiko Plazako Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Txapelketa amaitzeko finalerdiak eta finalak geratzen dira. Plazako pilotalekuko zorua konpontzeko lanak amaituta, partiduak han jokatu dira.

Aloña Mendik antolatutako txapelketan Gipuzkoa, Bizkaia eta La Puebla de Labarcako (Errioxa) 51 bikotek jokatu dute; 28k gazte mailan jokatu dute eta gainontzeko 23ek kadeteetan.

FINALERDIAK

Kadete mailako finalerdietan jokatu diren norgehiagokak dira: Oiartzabal-Agiriano (Esko-

51 bikotek parte hartu dute txapelketan; 28k, gazte mailan eta 23k kadeteetan

riatza), Zabaleta-Lizarribarren (Saiaz) aurka eta Rodriguez-Perez (Zaramaga), Alberdi-Perosanz (Berriz) aurka.

Gazte mailako finalerdietan, Ojuel-Sagaseta (Hernani), Garizabal-Larrinagaren (Elorrio) aurka eta Mendizabal-Azkarate (Antzuol-Oñati), Salaberria-Landabururen (Elorrio) aurka lehiatuko dira.

Finalerdiak bihar goizeko 10etatik aurrera jokatu dira plazako frontoian.

FINALAK, EGUBAKOITZEAN

Finalerdietako irabazleek finalak jokatzeko txartela eskuratu dute. Finalak uztailaren 28an, egubakoitzean, jokatu dira arratsaldeko 7etatik aurrera. Lehenengo kadete mailakoa eta ondoren gazte mailakoa.



ARTXIBOA

Pilota txapelketako azken partiduak plazako frontoian jokatu dituzte.

Nielka Iburguren bergarra eta Ander Zarketa oñatiarra Espainiako txapelketan izango dira Uztailaren 28tik aurrera Bartzelonan. Galdakaon jokatu

Euskadiko txapelketan lortu zituzten Bartzelonarako txartelak. Nielkak 100 metro bularrean egingo ditu. Galdakaon 1'10"ko marka egin zuen. Ander, berriz, 100

eta 200 metro bizkarrean arituko da. Galdakaon 1'05" eta 2'19"ko markak egin zituen. Gainera, Anderrek, urrezko domina eskuratu zuen 200 metro bizkarrean.

NIELKA IBARGUREN ETA ANDER ZARKETA | IGERILARIAK

"Espainiako txapelketa oparia izan da: orain gozatu egin behar dugu"

Arantzazu Ezkibel

Zorionak Espainiako txapelketarako lortutako postuagatik. Denboraldia amaitzeko modu borobila izan da. Hori zen helburua?

Nielka Iburguren: Ez, niretzat sorpresa izan zen. Galdakaon jokatu txapelketan denbora jais-tea zen nire helburu nagusia. Baina ondo egin nuen lana eta Espainiako txapelketarako txartela lortu nuen.

Ander Zarketa: Nire kasuan, denboraldiko helburua hori zen, Espainiako txapelketarako txartela lortzea. Iaz ere Bartzelonan jokatu zen Espainiako txapelketan izan nintzen eta esperientzia polita izan zen.

Galdakaon jokatu Euskadiko txapelketan nolako maila egon zen?

N.I: Nahiko maila altua zegoen, batez ere Donostia eta Irun aldeko igerilariak oso maila altua zuten. Espainiako txapelketetan, berriz, Kataluniako igerilariak izaten dira nagusi. Maila izugarria dute horiek.

A.Z: Bai, hala da, benetan maila altua egon zen Galdakaoko txapelketan. Irun aldeko jendea ondo gertatuta joaten da horrelako txapelketetara.

Zer nahiago duzu igerileku barruan igeri egitea edo itsasoko probak? Ze ezberdintasun dago?

N.I: Itsasoko zeharkaldiak politak izaten dira, baina igeri egiteko nahiago dut igerilekua.

A.Z: Nik ere igerilekua nahiago dut. Itsasoko ura hotzagoa izaten da; horregatik zailagoa da igeri egitea. Gainera, igerilekuan dena ikusten da eta itsasoan ez. **Nolako entrenamenduak egiten dituzue?**


N.I: Guk entrenamendu motzak egiten ditugu. Astean bost arratsaldetan etortzen gara Bergarako igerilekura. Oraingoz igeri bakarrik egiten dugu baina igerileku berriarekin, beharbada, beste zerbaite egiten ere hasiko gara.

A.Z: Oñatin, berriz, entrenamenduak goizez egiten ditugu, eskolara joan aurretik. Goizero ordu eta erdi egiten dugu igerian. Urtean bi astez, berriz, gimnasioa ariketak egiten ditugu, fisikoa indartzeko.

Kirol sakrifikatua da igeriketa?

N.I: Bai, beste kirol batzuekin alderatuz, askoz ere entrenamendu gehiago izaten ditugu. Kontuan izan bakarkako kirola dela.

A.Z: Bai, bakarkako kirola izatean, bakoitzak bere lanaren ardura eraman behar du. Kon-



Nielka eta Ander Nojako itsasoko zeharkaldian izan ziren zapatuan.

zentrazio asko eskatzen duen kirola da.

Jendea joaten da txapelketak ikustera?

N.I: Ez, guk egiten ditugun txapelketetan, gure gurasoak egoten dira baina jende oso gutxi joaten da. Jendez bete dagoen igerileku batean, urduritasun gehiago izango nuen.

A.Z: Espainiako txapelketak ikustera jende mordojoaten da. Halako kasuetan, presioa handiagoa izaten da..

Faboritorik ba al dago Espainiako txapelketan eta nola ikusten dituzue zuen buruak?

N.I: Katalanak dira faborito nagusiak. Horiek dira puntan dauden igerilariak.

A.Z: Espainiako txapelketara iristea oparia da, beraz, gu momentuaz gozatzera goaz. Faborito nagusiak etxeko igerilariak izango dira, Kataluniakoak.

Zein da gogokoena duzuen modalitatea?

N.I: Bular era da gustukoena dudana modalitatea. Beste modalitateak ere egiten ditut baina txapelketetan beti bularrez igeri egin izan ohi dut, ondoen aritzen naizen modalitatea da.

A.Z: Ni, bizkarrez aritzen naiz gusturen.

Igeriketa profesionalera heltzea zaila izango da.

N.I: Bai hori oso zaila da, ezinezkoa esango nuke. Gainera asko sakrifikatu beharra dago. Egunero 5000 metro entrenatu beharra

dago eta hori mordojoa da. Guk, asko entrenatzen dugunetan, 3500 metro egiten ditugu, beraz atera kontuak. Irun aldeko igerilariak, berriz, 6000 metro egiten dute.

A.Z: Oso zaila da profesionalerara heltzea. Askok entrenatu beharra dago, ordu asko sartu behar dira eta batzutan ikasketak ere alde batera utzi beharra izaten da.

"Gogor entrenatzen dugunetan 3.500 metro egitera iristen gara"

"Donostia eta Irun aldeko igerilariak oso maila altua erakutsi zuten Galdakaon"

"Espainiako txapelketan etxekoak izango dira faborito nagusiak"

"Horrelako beroarekin uretan egoten gara gusturen; Usakon edo hondartzan"

Igeriketaz gain, eskolan ere ibiliko zarete. Erraza da bi gauzak tar-tekatzea?

N.I: Bai, orain arte ondo eraman ditut bi gauzak. Baina hemendik aurrera, batxilergoarekin ikusi egin behar.

A.Z: Nire kasuan, goizez entrenatzeak, eskolara argi joateko balio dit eta gero, gainera, arratsaldeak libre izaten ditut.

Etetik urrun, errendimendu handiko zentro batera joateko prest egongo zinatekete?

N.I: Ez. Oraingoz, igeriketa denbora pasa besterik ez da niretzat. Horrelako zentro batean, oso gogorra da bizitzea. Gainera, lagunengandik urrun zaude, ia denbora guztia bakarrik.

A.Z: Gogorra dela esaten dute, baina aste pare bat pasatzea ondo egongo litzateke.

Egun guztia uretan pasa eta gero Usakora (Oñati) edo hondartzara joate gogoia izaten duzue?

N.I: Horrelako beroarekin zer egingo dugu ba?


A.Z: Bai, bai, horrelako beroarekin leku onena ura da.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Bergaran eta Arrasaten aire zabaleko film emanaldiak egingo dituzte abuztuan | 26
- Vietnamgo eta Portugalgo dantza tradizionalen ikuskizuna egongo da eguenean, Arrasaten | 27

Arabako Ortophonk taldeak emanaldia egingo du barikuan, Bergarako Espoioian | 26

ANA TOLEDO EUSKALTZAINAREN KARGU HARTZEA



Euskaltzaindiako kideak, Ana Toledo, euskaltzain oso berria, erdian dela, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatearekin batera.

XABIER URTZELAI

EUSKARA | AKADEMIAKO 'IKER' ETA 'JAGON' SAILETAN HARTUKO DU PARTE AURRERANTZEAN

Hemeretzigarren euskaltzain domina jaso zuen Andres Urrutiaren eskutik

Juan San Martin eibartarraren eserlekua beteko du Antzuolako filologoak. Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohiak egin zuen aitabitxi lana eta Toledoren sarrera-hitzaldiari erantzun zion

Jon Berezibar

Urrian izendatua izan ostean, egubakoitzean, Antzuolako Udalean egindako ekitaldi ospetsu baten, hartu zuen euskaltzain oso kargua Ana Toledok. Juan San Martin zenaren eserlekua hartuko du Toledok aurrerantzean akademian, euskaltzain oso aitortzen duen domina eta diploma Andres Urrutia euskaltzainburuaren eskuetatik jaso eta gero.

Goizeko 10:30 aldera hasi ziren euskaltzainak Antzuolako plazara gerturatzen. Ana Toledo ere goiz agertu zuen, Joxe Juan Gonzalez de Txabbarri senarrak eta semeak eta alabak lagunduta. Bertan zeuden ere haren seni-

deak eta herritar ugari euskaltzain oso berriari ongi etorri beroa egiteko. Lehenik eta behin agurren txanda etorri zen. Han zeuden akademiako kideak baina baita ere politika munduko aurpegi ezagunak, Jose Antonio Ardantza, lehendakari ohia, Nuria Lopez de Gereñu, Garraio Sailburua edota ibarreko hainbat alkate eta zinegotzi.

EKITALDI OSPETSUA

Derrigorrezko agurren ostean ekitaldiarekin hasi ziren. Euskaltzainak sartu ziren lehenengo udaletxeko pleno aretora, politikoak hurrengo, senideek jarraituta eta ostean gainontzekoek egin zuten sarrera txistulari eta dantzariak lagunduta. Plazan,

herritarrendako karpa bat telebistarekin ipini zuten, ekitaldia jarraitu ahal izateko. Antzuolarrrez bete zen karpa. Ekitaldi nagusian Jose Angel Zabalo alka-

Euskal idazkuntza eta literaturari buruzko hitzaldia egin zuen Toledok

Juan San Martin zenaren ekarpena ekarri zuten gogora hizlariek

teak, Xabier Kintana Euskaltzaindiako idazkariak eta Jean Haritschelharrek izan zuten hitza. Hala, Toledoren sarrera hitzaldi izan zen ardatza, euskara idatziari eta euskal literaturari buruzkoa. Haren aitabitxiak, Jean Haritschelharrek eman zion erantzuna berbaldiari eta amaieran domina eta diploma jaso zuen Toledok. Bi hitzaldietan behin baino gehiagotan ekarri zuten gogora Juan San Martinen lana eta Toledoren ardura hark utzitakoa jarraitzeko. Antzuolako alkateak ere herriko bandera eman zion Toledori, oroigarri batekin. Ekitaldi amaieran euskaltzain guztiak zutik jarri eta besarkada bero batekin akademiara ongi etorria eman zioten kide berriari.

ANA TOLEDO EUSKALTZAINAREN KARGU HARTZEA

ANA TOLEDO | EUSKALTZAIN OSOA

"Nire burua Deba arroko euskararen ordezkariatzat dut"

J. B.

Sarrera hitzaldi ostean izan ginen Ana Toledorekin. Lehenik eta behin bere herria ekarri zuen gogora.

Hunkituta jaso duzu euskaltzain oso egiten zaituen domina?

Hasteko Antzuolako herriari eskerrak eman nahi dizkiot eta baita Udalarari ere gaurko ekitaldia antolatze hartu duten lanarengatik. Oso harrera polita egin didate. Hemen daude nire sustraiak, hemen jaio eta guraso eta anai-arrebak bertan dauzkate. Horregatik aukeratu nuen nire sarrera hitzaldia Antzuolan egitea.

Zertan oinarrituko da zure lana datozen urteetan Euskaltzaindian?

Nire aitabitxiak, Jean Haritschelharrek esan moduan, nik literatura eta sustapen batzordean egin izan dut lan. Bat *iker* saila da eta bestea *jagonekoa*. Azken honek zaindu egiten du hizkuntza. Aurreantzean bi batzorde horietan lanean jarraituko dut eta hilean behinoko osoko bilkuretan esku hartuko dut, agintzen dizkidaten beste betebeharez gain, noski, nire burua erantzuteko gai ikusten badut. Horrez gain, nire burua Deba arroko euskararen ordezkari moduan ere ikusten dut. Nik eibartar baten eserlekua beteko dut, Juan San Martinek utzi zuena eta nolabait hori nahi izan dut hitzaldian azpimarratu. Berrogeita hamar urtetan gauzak asko aldatu dira. San Martinek 50. hamarkadaren amaieran hartu zuen akademiaren lekukoa. Belaunaldi hark berebiziko lana egin zuen euskara batuaren eredia ezartzen, erabilera sustatzen eta haiei guztiei omenaldia egin gura izan diet sarrera hitzaldian.



XABIER URTZELAI

"Garai berrien abiadura bizira moldatu behar du euskarak ere"

"Aurreko belaunaldiak berebiziko lana egin zuen euskara batuaren alde"

Eta gaur egunera etorrira zeintzuk izango lirateke erronkak?

Zalantzarik gabe erabilera. Hor dago erronka nagusia. Erabiltzen ez den hizkuntza hila da. Hainbat gauza dauzkagu egiteko, hala ere. Orain arte gure kultura liburuan oinarritu da baina teknologiak hau ere desagerrarazi egingo duela dirudi. Interneten garaian hizkuntza digitalizatu egin behar da. Euskarak munduaren martxari jarraitu behar dio. Orain arte aldatu epe luzera eman dira, baina gaur egun abiadura bizian aldatzen doa guztia.

• EKITALDIAN HITZ EGIN ZUTEN



JEAN HARITSCHELHAR | EUSKALTZAIN OSOA
"Hasitako lana aurrera eramateko ardura duen belaunaldi berriko kidea da Ana"

"Euskaltzaindiak hastapenetatik hainbat erronkari egin behar izan dio aurre. Lehengo hizkuntza atlas eta etorri zen eta ostean euskara literario bati buruz bide baten urratzea etorri zen". Erakundeak izan duen iraultzaile lana azpimarratu zuen Haritschelharrek Ana Toledoren sarrera-hitzaldiaren erantzunean: "Belaunaldi berriak (50. hamarkada-koak) euskal jendeari berrikuntza ekarri zion: Orotariko Euskal Hiztegia". Toledo eta San Martinen ibilbideei buruz ere hitz egin zuen Euskaltzaindikozuzendari izandakoa: "Bere bizi guztian San Martin euskararen zerbitzari leiala izan zen" eta Toledo belaunaldi berrian kokatzen du. Hitz bero hauekin agurtu zuen euskaltzain berria Haritschelharrek: "Laguntzaile lehenik, euskaltzain urgazle gero, euskaltzain oso orain, belaunaldi horretakoa zara, Ana. Zerorrek aitabitxi hautatu duzunak, ongi etorri bero batekin hartzen zaitu egun ospetsu honetan", gehitu zuen.




JOSE ANGEL ZABALO | ANTZUOLAKO ALKATEA
"Anaren erronka euskara hobetzen jarraitzea izango da, gainontzekook erabiltzen jarrai dezagun"

Ana Toledorekiko mirespen hitzak izan zituen herriko alkateak sarrera ekitaldian: "Anak berak aukeratu du sarrera-hitzaldia Antzuolan egitea eta ohorea da guretzat. San Martin

ere izan zuen Zabalok gogoan, Toledok haren lekukoa hartuko zuela azpimarratuz. "Haren hitzak hona ekarri gogoratu behar ditugu San Martinek lema izan zena: Beharrerako lotsarik ez". Esaldi horrekin esan gura izan zuen eibartarren lanaren jarraipena egin behar duela Toledok, "bere erronka euskara hobetzen jarraitzea" dela "beste guztiok erabiltzen jarraitu ahal izateko".

Antzuolara itzulita, alkateak ekitaldia herrian egiteak duen garrantziak mintzatu zen, euskaltzain oso berriari eskerrak emanez. Hori dela-eta, herriko bandera eta oroigarria jaso zituen ekitaldiaren amaieran Zabaloren eskutik. Hain zuzen ere, Anak berak ere Antzuolarrek egindako harreara eskertu zuen behin baino gehiagotan.

• IA ORDU BIKO EKITALDIAN HARTU ZUEN KARGUA TOLEDO EUSKALTZAINAK



AITA BITXIAREN ERANTZUNA. Jean Haritschelhar izan zen Toledoren aitabitxia eta sarrera-hitzaldiari erantzun ziona. Azpimarratu zuen Toledok hitzaldian zazpi lurraldeetatik egindako ibilbide zabala.



DOMINA ETA DIPLOMA. Aurrez Lino Akasolok eta Juan San Martinek izandako domina jaso zuen Toledok Andres Urrutiaren eskutik. Dominarekin eta euskaltzain oso aitortzen duen diplomarekin hartu zuen kargua barikuan.



HERRITARREN AGURRA. Ekitaldia eta gero txalo artean hartu zuten antzuolarrek Toledo herriko plazan. Herritarrek han ipinitako karpa baten jarraitu ahal izan zuten ekitaldia zuzenean telebista bidez.

ZINEA | BERGARAKO 'ZINEA ORAIN' PLATAFORMAK GOGOR JARDUN DU ARETO BATEN ALDE

"Horrenbeste itxaron ostean gaitasun berezi bat garatu dugu bergararrok"

Positiboa ikusten du plataformak azkenean areto bat egiten hastearna baina hauteskunderen presioa izan daitekeela dio

Goreti Elortza

Novedades zinea itxi zenetik urte eta erdi pasa ondoren, 'Zinea Orain' plataformak herritarrengana helarazi nahi izan du bere balorazioa. Hain justu, Seminarioko elizako proiektuari buruzko datu berriak ezagutzera eman direnean.

Hala, plataformako kideek, gogora ekarri dute berriz Bergaran kulturak sufritzen duen interes eta laguntza eza. Denboraldi luze honetan plataformak presio publikoa egin du eta kulturako ordezkariekin zein alkaterekin berarekin ere egon da harremanetan (apirilean azken aldiz). "Behin-behineko lokal bat mantendu nahian jardun dugu, Seminarioko obrak bukatzen dituzten bitartean. Emanaldi zinematografikoak zine edo bideo eran ikusi ahal izateko lokal bat. Baina jaso ditugun erantzunak, -gehienetan erantzun zuzenak izan ez direnak-, negatiboak izan dira. Legearen, ekonomiaren eta denboraren gainekoak izan dira emandako arrazoiak".



Aupa Etxebeste! filmeko fotograma, Monterron parkean izango da film hori ikusteko aukera.

Aurtengo Txotxongilo Mostren formatu handiko ikuskizunak ikusterik izan ez dutela ere salatu du taldeak. "Karpak 3.000 euro balio zituen eta horiek izan dira errudunak. Eta lokal egoki baten falta, noski. Seminarioko obrak 37 milioiko aurrekontua duen bitartean..."

Kulturak jasaten duen interes eta laguntza eza salatu du plataformak beste behin

"Behin-behineko lokal baten aldeko eskariak erantzun negatiboak izan ditu denbora honetan"

Aipamen berezia merezi du Zabalotegiko lokalak euren uste-tan. "Baldintza berdinetan jarraituko duela dirudi, nahiz eta egokitze proiektu bat badagoen. Ereite SL enpresak 2005eko uztailan egin zuen proiektu bat. Proiektuak, Zabalotegiko eraikinaren berritze osoa planteatzen zuen, zinema areto gisa egokitze-ko", diote plataformako kideek.

Auditoriumari dagokionez, areto bat egiten hastea berri ona dela azpimarratu dute. "Pozgarria da baina galdera asko sortu zaizkigu horren inguruan: Zein leku izan du orain arte zineak herri-kudeaketan?, zergatik da orain proiektua aurrera eramateko momentua?. Azken galderaren inguruan bi erantzun aipatu dituzte: "Zinea itxi zenetik herriak izandako erantzuna bata, eta bestea, hauteskunderen hurbiltasuna".

AIRE ZABALEKO EMANALDIK ABUZTUAN

Aretxabaleto plazan bihar eta egubakoitzean ere egongo da emanaldia. *Memorias de una Geisa* eta *Madagascar* filmak izango dira ikusgai.

Abuztuan, aire zabaleko zinema emanaldiak egingo dira Arrasate eta Bergaran.

Bergarako San Martin plazan egunetan izango dira emanaldiak, 22:00etan. *Charlie y la fábrica de chocolate*, *Obaba* (euskaraz), *Bajo Cero* eta *Koruko mutilak* filmak izango dira ikusgai, hurrenez hurren.

Arrasateko Monterron parkean, egubakoitzetan izango dira emanaldiak, 22:30etan. *El juego de los idiotas*, *Novia por contrato*, *Aupa Etxebeste!* eta *Sin miedo* filmak emango dituzte.

Betiko topikoei buelta bat gehiago eman zieten barikuan

Euskal Herri osotik ibili ostean egubakoitzean egin zuten Elgetan Oscar Terolen antzezlan aski ezaguna

Asteleheneko Goienkaria

Glu Glu antzerki taldearen eskutik *Todos nacemos vascos* lana egin zuten egubakoitzean Elgetako Kafe Antzokian. Euskal


Herri osotik makina bat emanaldi egin eta gero, benetan ospetsua egin den lana egon zen ikusgai barikuan Elgetan. Umorez beteta eta betiko topikoei buelta bat gehiago emanez, antzokiko ikusleek barre egiteko aukera izan zuten Gurutze Beitia edota Galder Aginagalde aktoreen lanarekin, besteak beste. Erritmo bizia dauka lanak eta horrek arintasuna ematen dio, munduko txisterik onenak ez badauzka ere. *Vaya Semanita* saioarekin ezagun egin zen Oscar Terolen izen bereko liburuan oinarritzen

da antzezlanak. Lola *la churrera* ren papera dauka Gurutze Beitia aktoreak eta hark zeruan bizi dituen gorabeheren berri ematen da lanean. Zeruan bera ere euskalduna dela konturatuko da Lola, gizateria guztiaren moduan. Euskaldun oso izateko, hala ere, moldatze prozesu batetik igaro beharko da Lola. Hori da argumentuaren ardatza eta sketche-tarako aitzakia. Musika, abesti eta ohiko txantxekin, topikoez egiten da barre *Todos nacemos vascos*-en: ligatze kontuak, sukaldaritza, euskaldun motak...



Ohiko topikoetaz egiten da barre antzezlanean.

ASTELEHENKO GOIENKARIA



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA




Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



KATE WINSLET, AIZKORRIN. *Titanic* filmeko aktorea balitz ageri zaigu oñatiar hau. Aurreko asteburuan egin zioten argazkia lagunek. /Argazkia: Itziar Zubia /Oñati



BEROARI AURRE EGITEN. Besaiden izan ziren eta gaztetxo eta ez hain gaztetxoek ur-gerra egin zuten apur bat freskatzeko. Batzuek sekulako freskatua hartu ei zuten. /Argazkia: Mercedes Iñarra /Arrasate



EUSKAL 'Y'-AREN MAMUA. Euskal Yaren lanak gainean ditugula diote. Irudiko tximistek ere hori iragarri nahi duela dirudi, y forma hartuta. /Argazkia: Gorka Iraola /Arrasate



ZERURAKO ESKAILERAK. Arantzazuko santutegia da, baina zerurako bidean doazen eskailerak dirudite. Halaxe iruditu zaio, bederen argazkilariari. /Argazkia: Luis Errasti/ Aretxabaleta

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.

Sariak:

- **1. saria:** Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela. Barceló Bidaiek agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Babeslea:

 kutxa

Laguntzaileak:



GURE AMETSA
JATETXEA

FOUR FRIENDS | 'BERGARA, UZTAILEKO OSTIRALAK ESPOLOIAN' JAIALDIKO HIRUGARREN EMANALDIA

Seikote bizkaitarrak kontzertu bikaina egin zuen egubakoitzean Espoloian

Sei bizkaitarrez osatutako Four Friends taldeak egubakoitz gauean egin zuen kontzertua Espoloian eta jazz, blues eta beste zenbait estiloko abestiak eskaini zituzten gogo biziz

Goreti Elortza

1999ko azaroan Bilbon sortutako taldea dugu Four Friends. Inaki Iraeta (gitarra), Eneko Albizu (gitarra), Fernando Iraeta (baxua), Jorge Gomez (perkusioa), Joe Gonzalez (saxoa) eta Izar Herran (ahotsa) dira taldeko kideak. Egiten duten musikak hainbat alor jorratzen ditu; jazz-a, blues-a, pop-a, rock-a... guztiak bat eginez. Deustuan entseatzen dute eta bi disko atera dituzte dagoeneko *Gaztelupeko Hotsak* diskoetxearekin. 2003an grabatu zuten euren lehen diskoa, *Bilbop* izenburua duena. Bigarren diska 2005eko abenduan grabatu zuten eta *Dzanga* du izena. Disko berri honetan formatu instrumentala ahotsarekin osatu dute bizkaitarrek.

ESTILO DESBERDINEKIN JOLASEAN

Egubakoitzean Bergarako Espoloian egindako kontzertura gogotsu etorri ziren bizkaitarrak eta abesti propioak zein estandarreko bertsiok jo zituzten han bildutako guztien gozamenerako.



Four Friends talde bizkaitarra egubakoitzean egindako kontzertuan Espoloian.

Musika estilo desberdinekin oso ondo moldatzen direla argi utzi ziguten bertaratuoi. Gainera, nabaria da egiten dutenarekin

disfrutatzen dutela eta euren arteko harreman ona.

Ordubete luze iraun zuen emanaldian euskara eta ingele-

sezko kantuak eskaini zituen Izar Herranen ahots zoragarriak. Bukaera aldera, Joe Gonzalez saxo-jotzaileak bakarkako bikai-

na jo zuen eta bere artea agerian utzi zuen Athom Rumba taldeko kide ere baden zornotzarrak.

EGUBAKOITZEAN AZKEN KONTZERTUA

Datorren egubakoitzean izango dugu *Bergara, Uztaileko Ostiralak Espoloian* musika jaialdiko azken kontzertua. Gasteizko Ortophonk jazz-funky taldeak egingo du kontzertua, gaueko 22:30etan Espoloian.

Dzanga bigarren diskoan, formatu instrumentala ahotsaz osatu dute

Hurrengoa

UZTAILAK 28
• 22:30: Ortophonk,
Gasteizko funkya.

Joe Gonzalezek bakarkako bikaina egin zuen saxofoiarekin

Oñatiko Gaizka Barandiaran euskaltzain urgazlea hil da

1961ean izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle; dantza irakasle, etnologo eta euskaltzalea ere bazen

A.G.

Loiolako basilikan hil zen eguean, 90 urte zituela Gaizka Barandiaran euskaltzain urgazle oñatiarra. Filosofia eta Letretan eta Eliz Teologian lizentziatu zen, Tournain eta Marneffen (Belgika) ikasi eta gero, Bartzelonako unibertsitatean Filosofiako lizentziatura orokorra atera zuen. Euskaltzain urgazlea zen eta horrekin batera dantza irakasle,

etnologo eta euskaltzalea zen. Lan ugari laga ditu, batez ere, euskal folklorearen eta euskal dantza tradizionalaren gainean.

Lan ugari egin ditu euskal dantza tradizionalaren gainean

EUSKALTZAIN URGAZLEA

1961eko abuztuaren 25ean izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle Gaizka Barandiaran. Ordurako nazioarteko hainbat kongresutan parte hartutakoa zen. Euskal aditzari buruzko liburuak, *r* kontsonantearen gainekoak, euskararen osaketaz edota dradibikoaren eta euskararen arteko antzekotasunaren inguruan idatzi zuen Oñatiko jesuitak. Ikasketek munduko leku askotara eroan zuen eta euskaraz gain zekizkien gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemaniera, hebraiera, grekoa, latina, katalana eta errusiera.



Donostian, Foru Aldundian, omenaldia egin zioten iazko maiatzean.

ARTXIBOA

Pop freskoa, dantzarako funkya eta Mexikoko doinuak, uztaila bukatzeko

Abuztuan, zinema emanaldiak –tarteant, euskarazko hiru film– izango dira Arrasaten eta Bergaran

Leire Kortabarria

Hemendik eta uda bukatu bitartean, musika eta zinema izango dira Debagoienean beroari aurre egiteko bi formula nagusiak.

Uztaila bukatzeko, bi musika emanaldi egongo dira. Bateatik, Bergarako jazz zikloa bukatzeko, Arabako Ortophonk taldea inguratuko da Espolaira. Datorren egubakoitzean egingo du kontzertua, 22:30ean. 70eko dantzarako funky erritmoak bere egiten ditu Ortophonk-ek, gaur eguneko ukitua emanda. Horiez gain, Oñatiko plazan, Sugan talde beasaindarrak bere pop gazte eta freskoa aurkeztuko du, kaleratu

berri duten euren lehen disko-ko abestiekin.

Elorrioko Musikaire jaialdiaren eskutik ere kontzertua izango da egun horretan, Herriko plazan, 22:30ean. Mexikoko Lila Downs taldeak joko du. Musika koloretsua da, alaia, mexikar sustraiak gorde baina gaur egungo musika joerei jaramon egiten diena.

ABUZTUKO ZINEMA

Abuztuan, aire zabaleko zinema emanaldiak izango dira eskaintza nagusia. Bergaran, egun guztietan emango dute film bat San Martin plazan, 22:00etan: *Charlie y la fábrica de chocolate*, *Obaba* (euskaraz), *Bajo cero* eta *Koruko mutilak*. Arrasateko Monterron parkean, *El juego de los idiotas*, *Novia por contrato*, *Aupa Etxebeste!* eta *Sin miedo* emango dituzte.

Horrez gain, rock kontzertu erakargarri bat ere antolatu dute Oñatiko San Lorentzo auzoko jaietan, abuztuaren 4an: Nuevo Catecismo Católico, Chico Boom, Los Chuloputas eta Mahaster River taldeek joko dute auzoko plazatzon.

Labur

Postal lehiaketak antolatu dituzte Aramaion eta Eskoriatzan

Udako postal lehiaketa bana antolatu dute Aramaioko Txirrito la euskara elkarteak eta Eskoriatzako Inkernu tabernakoek.

Aramaioko lehiaketan parte hartzeko, kultura etxera, Nardeaga kalera, bidali behar dira postalak, irailaren 15era bitartean. Nekazal turismo baten asteburuko egonaldia da saria.

Bestetik, Eskoriatzako lehiaketarako, honako helbidera bidali behar dira postalak: Inkernu, Hidalgo 5, behea; 20540 Eskoriatza. Afari bat zozketatuko dute denen artean.

Usoa Mendikute eta Mari Carmen Laskurain bergararren erakusketak

Usoa Mendikute bergarar artista gaztearen erakusketa ikusteko azken egunak dituzue: hain zuzen, hilaren 30era arte egongo da zabalik erakusketa hori Bergarako Aroztegi aretoan. Abuztuan ez da erakusketarik egongo. Irailaren 1ean, Bubisher elkarteak Sahararen gaineko erakusketa zabalduko du.

Beste bergarar batek, Mari Carmen Laskurainek, ere erakusketa dauka. Nahikari tabernan ipini ditu tamaina ertaineko 15 margolan, eta hori ere hil bukaerara arte egongo da zabalik.

'En la cuerda floja' film saritua emango dute gaur Eskoriatzan

Uztaileko zinema zikloaren barnean, *En la cuerda floja* biopic-a emango dute gaur, astelehena, Eskoriatzako plazan, 22:30ean. Film horretako emakumezko protagonistak, Reese Witherspoon aktoreak, emakumezko aktore onenaren Oscar saria irabazi du bere lanarengatik.

Johnny Cash 60eko hamarkadako musikariaren bizitza kontatzen ditu filmak: hasiera xumeak, rock-and-roll-eko izarra zeneakoak, drogarekiko mendekotasuna, amaztearekin harremana...

Hitzorduak



VIETNAMGO ETA PORTUGALGO DANTZA TRADIZIONALEN IKUSKIZUNA |

Arrasateko nazioarteko dantza eta folklore ikuskizuna izango da eguenean, Monterron parkean

Nazioarteko dantza ikuskizuna izango da hilaren 27an, eguena, Arrasateko Monterron parkean. Atzerriko bi talde erakutsiko dituzte euren dantzak: batetik, Vietnamgo Hue hiriko dantza taldeak (argazkian) Cung Dinh izeneko dantza egingo du, garai feudalean Vietnamgo erregeei egiten ziz-

kietenak. Beste taldea Portugalgo Areosa izango da, eta Viana zonaldeko dantzak eta folklorea erakutsiko ditu. Bigarren talde hau aurreikusitako Togo talde baten ordeaz dator.

Hamaseigarren urtea du Arrasateko nazioarteko ikuskizun horrek. 22:30ean hasiko da.

ZINEMA |

• *Memorias de una geisha* filma Aretxabaletan

Bihar, martitzena, emango dute film hori Herriko plazan, 22:30ean. Egubakoitzean, hilak 28, *Madagascar* animaziozko filma emango dute, hori ere plazan.

• *Scary movie 4* filma emango dute Arrasaten

Egubakoitzean, hilak 28, emango dute film hori Monterron parkean, 22:30ean.

• *16 calles* filma emango dute etzi Eskoriatzan

Etzi, eguaztena, *16 calles* filma emango dute Herriko plazan, 22:30ean, eta egubakoitzean, hilak 28, *Shin-Chan: abenturak Henderland-en*, leku eta ordu berean.

• *Film emanaldi berezia* egingo dute Elgetan

Uztaileko film emanaldi zikloa bukatzeko, hil honetako ikusleek aukeratutako film bat emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean.

MUSIKA |

• *Jamberri techno jaialdia* egingo dute Bergaran

Hot session Search and Destroy delako techno jaialdia egingo dute hilaren 29an, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Euskal Herriko eta Espainiako disko jartzaileak arituko dira. Sarre- eta edaria, 15 euro.

IKASTAROAK |

• *Hiznet soziolinguistikako* ikastaroa antolatu dute

Hiznet soziolinguistikako ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Euskararen egoera hobeto ulertzeko eta normalizaziorako estrategiak finkatzeko oinarriak ematen ditu. Argibideak: 943 32 63 98.

ERAKUSKETAK |

• *Agirre Zenitagoiaren* margolanen erakusketa

Eskoriatzako Inkernu tabernakoek Agirre Zenitagoiaren margolanen erakusketa antolatu dute. Zortzi bat margolan dira, denak estilo kubistakoak. Hil osoan dago erakusketa Inkernu tabernan.

LEHIAKETAK |

• *Film laburren lehiaketa* antolatu dute Bergaran

I. Film Laburren lehiaketa antolatu du Udalak, Debagoienean bizi den edozeinendako. Lanak bakarka edo taldeka aurkez daitezke irailaren 15era arte, kultura etxean. 300 eta 250 euroko sari bana dago, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa.

• *Oñatiko jaietako kartel* lehiaketa antolatu dute

Herriko jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak, oñatiarrendako eta Oñatin bizi direnendako. Derrigo-

rezko testua hau da: *Oñatiko jaixak 2006*. Kultura etxean edo udaletxean utzi behar dira lanak. 250 eta 125 euroko sari bana emango dute.

• *Gomendatzen Dizut...*

sariketa zabalik dago

Gomendatzen Dizut... lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, eta antolatzailen, Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuen esanetan, uda da parte hartzeko sasoirik onena. Edozein oporraldiko gomendioak eskatzen dituzte. Argibideak, www.aizue.com blogean.

• *III. Euskal Herriko Grafiti* lehiaketa antolatu dute

Topagunearen Euskal Herriko grafiti lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek grafitien zirriborroak bidali ditzakete. Argibideak, helbide honetan: gazteak2@topagunea.com.

• *II. Danbaka musika lehiaketan* parte har daitezke

Goienak antolatutako II. Danbaka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontak-tua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara edo danbaka@danbaka.com helbidera. Argibide gehiago: www.danbaka.com.

Eguraldia



Bero itogarria astearen lehen erdian eta sanoagoa eguaztenetik aurrera

Beroak ez du etenik egingo astearen lehen erdiari dagokionez behintzat. Egun eguzkitsua eta beroa izango da gaurkoa eta kostaldean bakarrik egongo da brisa. Iluntze partean, bero-lainoak sortu arren ez dute botatzeko itxurarik izango. Martitzena oraindik ere beroagoa izango da. Hala ere, badirudi

arratsaldean ipar-ekialdeko haizea hasiko dela jotzen eta freskotasun apur bat igarriko da. Astearen bigarren erdian giro naturalagoa egongo da. Tenperaturak ez dira hain altuak izango eta litekeena da euri apur bat ere egitea. Hala ere hoberanzko joerarekin.

Guardiako farmaziak

ARRASATE		
Astelehena, 24	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)
Martitzena, 25	Irizar	Erguin 11 (943 79 12 39)
Eguaztena, 26	Amezua	Santa Marina 32 (943 79 09 74)
Eguena, 27	Ruiz Perez	Magdalena 31 (943 79 14 09)
Egubakoitza, 28	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)
BERGARA		
Astelehena, 24	Zabala	Barrenkale 25 (943 76 16 87)
Martitzena, 25	Guallar	Oxirondo 4 (943 76 11 05)
Eguaztena, 26	Urrutikoetxea	Matxiategi 5 (943 76 11 74)
Eguena, 27	Zabala	Barrenkale 25 (943 76 16 87)
Egubakoitza, 27	Guallar	Oxirondo 4 (943 76 11 05)
OÑATI		
Astelehena, 24	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
Martitzena, 25	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Eguaztena, 26	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
Eguena, 27	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 28	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
ARETXABALETA		
Astelehena, 24	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 25	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 26	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguena, 27	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 28	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak

((112)) SOS DEIAK	
OSASUNA / LARRIALDIK	Eskoriatza 943 71 44 07
OSAKIDETZA (Larriald.) 943 46 11 11	Leintz Gatzaga 943 71 47 46
DYA (Orokorra) 943 46 46 22	Oñati 943 78 04 11
DYA (Antzuola) 943 78 71 57	GARRAIOAK
Gurutze Gorria 943 22 22 22	Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Suhiltzaileak 943 78 28 00	PESA 902 10 12 10
Ertzaintza	Taxiak
Arrasate 943 79 71 99	Antzuola 943 76 61 81
Bergara 943 53 47 20	Arrasate 943 79 12 22
Osasun Etxeak	Aramaio 945 44 50 33
Arrasateko Ospital. 943 03 53 00	Aretxabaleta 943 77 12 64
Antzuola 943 76 62 23	Bergara 943 79 12 22
Aramaio 945 44 53 40	Eskoriatza 943 71 40 59
Aretxabaleta 943 71 19 59	Oñati 943 78 03 65
Bergara 943 03 54 00	RENFE 902 24 02 02
Elgeta 943 03 54 00	DEBAGOIENA
Eskoriatza 943 71 44 52	Mankomunitatea 943 79 33 99
Leintz Gatzaga 943 71 47 46	Hilttegia (Zubillaga) 943 78 15 12
Oñati 943 03 54 30	Mendi nekazaritza elk. 943 76 25 47
Hies Ekimena 943 79 26 99	Nekazaritza Ganbera 943 76 10 15
Udaltzaingoak	Zerga Bulegoa 943 76 58 63
Antzuola 943 76 62 46	Euskara Taldeak
Aramaio 945 44 50 16	Debagune 943 77 12 28
Arrasate 943 79 14 39	AED / Arrasate 943 71 21 17
Aretxabaleta 943 71 18 63	Axtroki / Eskoriatza 943 71 54 34
Bergara 943 77 91 06	Goibeko / Elgeta 943 78 90 85
	Loramendi / Aretx. 943 77 09 70
	Idolaz / Antzuola 943 78 70 56
	Jardun / Bergara 943 76 08 19
	Laixan / Oñati 943 71 63 11
	Txirritola / Aram. 945 44 52 66
	Hondakindegia Alternatiboak
	Arrasate 943 77 11 43
	Bergara 943 76 44 42
	Oñati 943 78 36 67
	Kiroldegiak
	Aramaio 945 44 53 35
	Arrasate 943 77 16 77
	Aretxabaleta 943 71 26 28
	Bergara 943 76 56 41
	Elgeta 943 76 82 84
	Eskoriatza 943 71 53 28
	Oñati 943 71 63 75
	Kultura Etxeak
	Antzuola 943 76 60 65
	Aramaio 945 44 53 74
	Arrasate 943 77 01 05
	Aretxabaleta 943 71 10 27
	Bergara 943 77 91 58
	Eskoriatza 943 71 46 88
	Leintz Gatzaga 943 71 47 46
	Oñati 943 78 03 53
	Udalak
	Antzuola 943 76 62 46
	Aramaio 945 44 50 16
	Arrasate 943 79 09 00
	Aretxabaleta 943 71 18 62
	Bergara 943 77 91 00
	Elgeta 943 76 80 22
	Eskoriatza 943 71 44 07
	Leintz Gatzaga 943 71 47 46
	Oñati 943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA	
Astelehena, 17	9 · 27 · 30 · 36 · 42 · 44
Osagarria: 31 Itzulketak: 2	
Martitzena, 18	15 · 20 · 30 · 36 · 39 · 44
Osagarria: 14 Itzulketak: 4	
Eguaztena, 19	2 · 8 · 30 · 36 · 40 · 46
Osagarria: 38 Itzulketak: 4	
Egubakoitza, 21	5 · 11 · 14 · 24 · 30 · 40
Osagarria: 4 Itzulketak: 5	

ONCE	
Astelehena, 17	00.302
Martitzena, 18	60.170
Eguaztena, 19	37.270
Eguena, 20	98.005
Egubakoitza, 21	03.969
Kupoitzarra (117 seriea)	
Domeka 9	35.770
Kupoitzarra (030 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBA	
Eguena, 20	5 · 18 · 22 · 23 · 27 · 44
Osagarria: 41 Itzulketak: 9	
Zapatua, 22 (Saritzarra)	7 · 11 · 21 · 27 · 28 · 42
Osagarria: 13 Itzulketak: 2	
Domeka, 16 (Saritzarra)	3 · 4 · 12 · 26 · 44
Itzulketak: 7	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

Ikerketa. Irungo Udala. Jose Antonio Loidi Beka 2006. Ikerketa arloak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Epea: irailaren 4tik 22ra.
Doktoregoa. Iñaki Goenaga-Zentro Teknologikoen Fundazioa. Beka hauek Doktorego Tesia kalitate edo ospe frogatua duten ikerketa-unitateetan egin nahi duten Goi-mailako Unibertsitate Tituludunentzat dira. Epea: uztailak 28.

EKINTZAK |

Kale antzerkia. Donostiako Udala. Uztaila eta abuztuan kale-antzerkia Donostian. Programa ezagutzeko: www.donostiakultura.com.

IKASTAROAK |

Boluntariorikako oinarrizko ikastaroa. Hezkide eskola eta Arrasateko Udala. Ostiral eta larunbatetan, guztira 20 orduko iraupena. Epea: irailak 16.

LEHIAKETAK |

Graffiti. Topagunea, Euskara Elkartearen Erakundea. Euskal Herriko III. Graffiti lehiaketa 2006. Epea: abuztuak 31.
Literatura. Edebé argitaletxea. Haur eta gazteentzako literaturako XV. Edebé saria. Obraren generoa eleberria izango da. Epea: irailak 15.

LANA |

Gizarte langileak. Erandioko Udala. 2 gizarte langile kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: abuztuak 4.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Bertan salgai

ASTELEHENKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibarra okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Garikoitz Umez
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak eta muxu potolo bat! Etxekoak.



ARRASATE
Txaber Etxabe
Uztailaren 26an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoan partetik.



ARRASATE
Joanes Elkorbarrutia
Uztailaren 26an, 4 urte. Zorionak. Sanvi Txiki.



ARRASATE
Julen Mujika
Uztailaren 30ean, 6 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Maialen Gallastegi
Abuztuaren 1ean, 4 urte. Zorionak, ponpoxa! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Manex Madinabeitia
Abuztuaren 2an, 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



ARRASATE
Oxel Iturriotz
Abuztuaren 2an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoan partez.



ARRASATE
Irune Cia
Abuztuaren 3an, 4 urte. Zorionak, Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Xabier Gorosabel
Abuztuaren 9an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoan partetik.



ARRASATE
Yera Molero
Abuztuaren 13an, 4 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoan partetik.



ARRASATE
Nagore Cabrera
Abuztuaren 17an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



BERGARA
Maika Murua
Uztailaren 19an, Zorionak eta urte askotarako. Hezitzaileen partetik!



BERGARA
Sherezade Moreno
Uztailaren 23an, 23 urte. Urte askotarako. Etxekoak eta Iban.



BERGARA
Aritz Bikuña
Uztailaren 24an, 34 urte. Zorionak eta urte askotarako koadrilakoan partetik!



BERGARA
Aitor Sanchez
Abuztuaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak maite zaituen baten partez.




BERGARA
Maialen Roman
Uztailaren 27an, 2 urte. Zorionak! Araceli eta Paulen familia.



BERGARA
Idoia Agirrezabal
Uztailaren 30ean, 6 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoan partetik!



BERGARA
Hodei Gomez de Balujera
Abuztuaren 3an, 6 urte. Zorionak etxekoan partetik!



ARETXABAETA
Jone Freitas
Uztailaren 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat etxekoan partetik.



ARETXABAETA
Leire Gonzalez de Martin
Abuztuak 12an, 2 urte. Urte askotarako. Etxekoak.



OÑATI
Oihana Arregi
Uztailak 24an, 5 urte. Zure neba Haritz, amatxo eta aitatxo.



OÑATI
Izar Díaz
Uztailaren 24an, 2 urte. Zorionak potxola! Ondo pasau eguna Valtierra.



OÑATI
Eider Egaña
Abuztuaren 2an, 4 urte. Zorionak. Etxekoak, Leire eta Markel.



ARAMAIO
Nerea Asurmendi
Uztailaren 20an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Goretiren partetik.

Jaiotakoak



Jon Zangitu Aranburu
Bergara • 3,650 Kg. Uztailaren 17a.
Gurasoak: Aitziber (Bergara) eta Iñaki (Bergara). Argazkian ama eta aitarekin.



Amaiur Isasmendi Martinez
Eskoriatza • 3,970 Kg. Uztailaren 19a.
Gurasoak: Nuria (Arrasate) eta Mikel (Eskoriatza). Argazkian umea kuman.



Julen Vazquez Gomez
Bergara • 3,120 Kg. Uztailaren 19a.
Gurasoak: Marian (Bergara) eta Jabi (Bergara). Argazkian umea kuman.



Elene Albizua Moreno
Bergara • 3,580 Kg. Uztailaren 22a.
Gurasoak: Idoia (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian umea kuman.



Erik Sanz Santos
Bergara • 3,890 Kg. Uztailaren 22a.
Gurasoak: Josune (Bergara) eta Unai (Bergara). Argazkian umea kuman.



Auritz Oregi Laskurain
Azpeitia • 2,240 Kg. Uztailaren 22a.
Gurasoak: Meñaka (Arrasate) eta Oier (Soraluze). Argazkian ama eta aitarekin.



Daniel Bengoa Uriarte
Oñati • 3,340 Kg. Uztailaren 22a.
Gurasoak: Jaione (Oñati) eta Jon (Eibar). Argazkian aitaren besoetan.



Maren Lezeta Iturralde
Bergara • 3,890 Kg. Uztailaren 21a.
Gurasoak: Ane (Bergara) eta Jose Mari (Antzuola). Argazkian umea kuman.



Izaro Gartzia Garai
Arrasate • 3,860 Kg. Hilaren 22a.
Gurasoak: Eli (Arrasate) eta Agustin (Eskoriatza). Argazkian amaren besoetan.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria: irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA


ESKER ONA

Gotzon Elkoro Gabilondo

2006ko uztailaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko hasiera-hasieratik kulturaren alde egindako guztiagatik.

goibeko
EUSKAL KULTURA ELKARTEA



Elgetan, 2006ko uztailaren 24an.

URTEURRENA

Nerea Martin Urzelai

Laugarren urteurrena. Aretxabaletan hil zen, 2002ko uztailaren 26an, 21 urte zituela.

Zerura begiratu eta ez zaitut ikusten, hurrera begiratu eta ez zaitut aurkitzen, bihotzari so egin eta bertan somatzen zaitut



Zu gurekin eta gu zurekin betiko Nere. Zure kuadrillia. Aretxabaletan, 2006ko uztailaren 24an.

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

Trantsizio garaia aztergai bailarako protagonistekin

Trantsizio garairen gaineko monografikoa. *Alcaldes en lucha* liburua idatzi duen Txema Urrutiari egindako elkarrizketa. GOITBko *Berbaire*sasoian Luis Arkauz, Jose Luis Elkorro eta Jabier Errastik esandakoak ere jasoko dituzte.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Euskadi Irratia' 24 orduz

Irailaren 1era arte ez da emisorik izango

Joan den ostiralean, uztailaren 21ean, bukatu zituen emisioak Oñati Irratiak eta irailaren lehen ekingo diote denboraldi berriari. Bien bitartean, Euskadi Irratia 24 orduan entzuteko aukera izango duzue Oñatiko Irratiko frekuentzian.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Idiazabalgo udako auzolandegietara bisita

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

Astronauta izateko egin beharrekoak

Herri Irratia


FM 99.8

'Hondartzaz hondartza' | 10:00

Herrietako jaiak eta hondartzen egoera

GOITB programazioa

Astelehena, 24



'Berbaire' saioaren errepikapena 21:15

Alkateen mugimenduak 30 urte bete berri ditu eta horren gainean jardun dute Jose Luis Elkorok, Luis Arkauzek eta Jabier Errastik.

- 07:55 Emisio hasiera.
- 08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
- 08:50 Klip@k.
- 11:00 Euskal Herria Oinez. Aizkorri eta Udalatz.
- 11:30 Eltze beroa.
- 12:00 Elkartasun bideak.
- 12:30 Ilunpean: Juan Luis Bikuña.
- 13:00 Berbaire. Alkateak borrokan liburuaren aurkezpenaren gaineko saioa.
- 14:00 Debarri: Debagoieneko mankomunitateko ordezkariak.
- 15:00 Marrazki bizidunak. Snorkeldarrak
- 16:30 Danbaka.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Jazz.
- 18:00 Jaiak 2006. Antzuola eta Lesaka.
- 19:30 Teknopolis.
- 20:00 Ilunpean.
- 20:30 Didjeridu.
- 21:00 Jon Maiaren emanaldia Seguran.
- 22:30 Berbaire.
- 23:30 Segurako Erdi Aroko Azoka.
- 00:00 MKT.
- 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 25




'Jaiak 2006': Lesaka eta Antzuola 21:00

Jaietako saio bereziekin jarraituz, gaur Lesaka eta Antzuolako jai giroarekin etxean gozatzeko aukera izango duzue.

- 07:55 Emisio hasiera.
- 08:00 Marrazki bizidunak bilduma.
- 11:00 Eltze beroa.
- 11:30 Danbaka.
- 12:00 Jon Maiaren emanaldia Seguran
- 13:30 Erdi Aroko azoka Seguran 2006.
- 14:00 Jaiak Antzuolan.
- 14:30 Jaiak Lesaka 2006
- 15:00 Euskal Herria Oinez.
- 15:30 Ilunpean: Juan Luis Bikuña.
- 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura eta Snorkeldarrak.
- 17:30 Debarri.
- 18:30 Elkartasun bideak.
- 19:00 Didjeridu
- 19:30 Behazulo.
- 20:00 Berbaire
- 21:00 Jaiak 2006: Lesaka eta Antzuola.
- 22:00 Elkartasun bideak.
- 22:30 Didjeridu.
- 23:00 Eltze beroa.
- 23:30 Astekoak.
- 23:45 Emisio amaiera.

Eguaztena, 26



Marrazki bizidunak gaztetxoendako 13:20 eta 20:15

Card Sakura, Snorkeldarrak eta Bihurkorrak marrazki bizidunekin gozatzeko aukera duzue egunero GOITBn, eguerdian eta iluntzean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Didjeridu.
- 14:30 M1.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraiak.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustraiak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Sustraiak
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jaiak 2006: Baztandarren biltzarra.
- 23:45 Gaurkoak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 27



Debagoieneko albisteak 22:15

Bailaran gertatutakoa jarraitzeko aukera duzue GOITBko albistegietan. Deiane Arrieta eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Klipak.
- 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraiak.
- 15:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz.
- 16:15 Klipak
- 16:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:45 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea: Sarako itzulia.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazkiak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Elkartasun bideak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Harmailatik.
- 23:45 Albisteak.
- 23:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 28




'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin 21:15

Debagoienarroi eragiten dizkiguten gaiak plazaratzen dituzte astero *Behazulo* saioan. Goiatz Aranarekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 M1.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 M1.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu
- 16:15 Klipak.
- 16:30 M1.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Erreportaia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz.
- 19:45 Albisteak. Julen Iriondo.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Albisteak. Julen Iriondo.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak. Deiane Arrieta.
- 23:15 Didjeridu.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Herriaren babesa genuelako eta guztiok elkarrekin geundelako lortu genituen lortu genituenak"

JOSE LUIS ELKORRO | BERGARAKO ALKATE OHIA
Berbaire, 2006-07-20



"Bergarako taldeak eragin handia izan zuen eta horren adierazle da Madrilek aintzat hartu gintuela"

LUIS ARKAUZ | OÑATIKO ZINEGOTZI OHIA
Berbaire, 2006-07-20

Aramaioko rallysprinta

Igor Orobengoaren autotik hartutako irudiak eskainiko dituzte, besteak beste

Eguaztenean, uztailaren 26an, 21:15ean



Uztailaren 24a: 096 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 24, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

24 euro
2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Bixenta Azkoaga Beitia (Gatzaga)
- Josune Eraña Azkarraga (Eskoriatza)



Irailaren 4ko sariak



**DONOSTIAKO
AQUARIUMa**
bisitatzeko bi gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



Hamarrekoa

ALBERTO GORRITIBEREA | IRRATI ESATARIA

"Jesus Quintero ikaragarri gustatzen zait, eta Iñaki Gabilondo maisua da"

Amagoia Lasagabaster

1. Nolatan kazetari? Halabeharrez. Ez dut kazetaritza ikasketarik egin. Loiolako Herri Irratian lan egiteko deialdia egin zuten eta aurkeztu egin nintzen. Azterketak egin eta gero, Laxaro Azkune eta biok hartu gintuzten. Pentsa, 17 urte pasatu dira ordutik hona.

2. Zein izan zen aurreneko lana? Bidez bide izeneko irratsaioa. Garai hartan euskaraz eginiko saio entzunena izan zen. Tamalez, orduan euskaraz ez zuen komertzialki diru askorik ematen eta kendu egin zuten.

3. Herriz herri saioari esker Gipuzkoako herriak inork baino hobeto ezaqutzen dituzu? Uste dut baietz. 17 urte daramatzat saio horrekin, baina inoiz ez da zaharkiturik gelditu. Urtero egiten dizkiogu aldaketak.

4. Azken erromantikoa ere izan zinen garai baten. Bai, izen hori zuen saioa egin nuen eta polita izan zen. Ezkongaien programa zen, eta, besteak beste, maitasunezko eskutitzak igortzeko eskatzen genien entzuleei. Gero musika

goxoarekin irakurtzen genituen antenan.

5. Zer falta zaigu irratian egiteko? Gustura egingo nuke saio pertsonal bat. Irrati publikoetan, baina, babesleek markatzen dituzten arauak bete behar izaten ditugu. Zoritxarrez zaila da horrelako saio bat aurrera ateratzea.

6. Quintero-zalea ei zara. Bai, ikaragarri gustatzen zait. Iñaki Gabilondo ere maisua da. Eta garai baten, Alberto Oliveros ere gustatzen zitzaidan. Quinteroaren *El loco* saioa oso gustuko dut. Hala ere, uste dut, Quinterok lehenago zuen ausardia galdu egin duela.

7. Nori egingo zenioke elkarriketa bat gustura? Edozeini. Begira, egiten duzun elkarriketa horri gustua ateratzean dago gakoa. Badira herrietan benetako altxorak.

8. Kostaldea edo barnealdea? Biak. Ezin dut bakarra aukeratu. Eibarren jaio, Deban hazi eta Mutrikun bizi naiz. Herri guztiek dute zerbait. Kostaldea gustatzen zait itsaso gaiztoa dagoenean. Olatu horien indarrak txunditu egiten nau.



AMAGOIA LASAGABASTER

Ez du bere burua funtzionario moduan ikusten. 17 urte daramatza kazetari lanak egiten eta oraindik lehenengo egunean zuen jakin-min bera du. Gakoa? Egiten duena zaletasun gisa hartzea, gustuz egitea. Argazki kamerarekin paseatzea eta bidean aurkitzen duen jendearekin hitz egitea da Albertoren denbora-pasa. Hartu-emanak indartu egin behar direla aldarrikatzen du.

9. Beste Alberto Gorritiberea bat bada munduan. Bai, zine zuzendaria da eta lehengusua dut. Ezagun egin denetik sarri nahastu gaituzte. *Eutsi* filma egiten dabil egun. Lan bikaina aurkeztuko du.

10. Erretiratuko zara inoiz? Ez, hori argi daukat. Biharko egunean egiteko zerbait edukitzea garrantzitsua da. On Joxe Migel Barandiarani egindako elkarriketetan ikasi nuen hori.



Biharamuna

Iñigo Biain

Oporrak

Elad Redguez, 26 urte, eta Ehud Goldwasser, 31 urte, Hezbollah-ren tour turistiko batean galdutako bi soldadu israeldar. Hassan Nasrallah, 46 urte, Hezbollah alderdi politiko/talde armatu/bidai agentziako burua. Ehud Ólmert, 61 urte, Israelgo gidari turistikoa. 50.000 lagun baino gehiago euren herrietatik kanpora halabeharrezko "oporretan", bizitza oso bat haur israeldarrek sinatutako bonben erasopean utziz. Zantzarraz Ramallah-tik gertu "oporretan" check-point israeldar batean soldadu juduen tiroengandik ihesi... Gertuago, Maltako uretan, Francisco eta Catalina untziko arrantzaleak heroi bilakatu dira handik gertu "oporretan" zebilen etorkin talde batekin edozein pertsona duinek izango lukeen jarra izateagatik (honek ez die batera meriturik kentzen, noski). Mohamed Klav "oporretan" bere jaioterria den Saharara bueltatu da, aspaldi ikusi ez duen familia eta lagunak bisitatzera. Eta noski, opor garaian ezin ahaztu Marbella: Julian Muñoz kartzelan "oporretan" eta Isabel Pantoja koplak goibelak abesten, oporretarako goibelegiak diren koplak. Eta nik ezin oporrak burutik kendu! Zuek gehienok ere antzera ibiliko zarete, ez dut zalantzarik egiten, eta horregatik doakizue hurrengo gomendioa: Israel, Libano, Palestina, Malta edo Marbellara joateko asmotan bazabiltzate, ez ahaztu eltxoengandik babestuko zaituzten krema... boba, lapur eta intoleranteen aurka ezingo duzue ezer egin eta!

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2€ + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Femín Muguruz) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Eus dican mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itziz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilgaria (Ken7) | **IKEN**
Inpermuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teillatu (Itziz) | **ITZOILAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loreboa (EXKILU) | **LORE**
Marea Gora (Itziz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarrri Sarrri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen Jeizean (Exkixu) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bete) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantoba) | **BAI**
Bakezaleak (Ane Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maita (Berito Larbundi) | **BIZKAIA**
Eperrak (Ane Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Osokom) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Osokom) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Osokom) | **FURRA**
Galziara noa (Osokom) | **GAUZIARA**
Germikak Arbolak (Gortzi Mendibil) | **GERNIKAI**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**
Izarren hautsa (Kabilor Lata) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantoba/Pesio) | **LEPOAN**
Marinellaren Zai (Sorotan Bete) | **MARINE**
Nere herriko neskatxa maita (Larrendu) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Undargarri) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (Larrendu) | **OIAMA**
Tirauki (Osokom) | **TRA**
Txatxamabalinatu (Mikel Undargarri) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maita duzun hori (Ruper Ordorika) | **ZAINDU**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

ZINEMA
ZORIOAK
GLOBUAK
NIREKIN
AIZKORAK
EGUZKILOREK
SORGINGA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiritu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde emateko duan da eta Ro jaitsera bakoik ordaindu behar du. Kasu gutxietan daia eta GPRS sisteman alda emateko duan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone: deitu 123-ra. * Movistar: deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaie abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com